



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

Jardueren Oroitidazkia

Lehiaren Euskal
Agintaritza
2019

competencia.euskadi.eus





© Lehiaren Euskal Agintaritza/Autoridad Vasca de la Competencia, 2020

Editorea: Lehiaren Euskal Agintaritza/Autoridad Vasca de la Competencia

Gordailu legala: BI-980-2019

Azalaren irudia: Elena Carriedok eginikoa

Aurkibidea

I. Aurkezpena	5
II. Plan Estrategikoa 2019an	7
III. Lehia sustatzea	9
1. Prebentzioaren eta sentsibilizazioaren aldeko apustu irmoa	9
2. Txostenak	10
3. Aurkaratzea	18
4. Kotsultak	19
5. Gidak, azterlanak eta kotsulta publikoak	21
6. Lehia ikastetxeetan	23
IV. Lehia Defendatzea	25
1. Zehatzeko ahalmenaz baliatuz	25
2. Ikerketa Zuzenbideak eginikoak	26
3. Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpenak	27
4. Ebazpenen jurisdikzio-berrikuspena	30
V. Instituzio-jarduna sendotzea	33
1. Agenda	33
2. Agerraldiak Eusko Legebiltzarrean	36
3. Lehia-sareetan parte hartzea	37
4. Gizartera hurbildu	42
VI. Erakunde autonomo bat kudeatzea	49
1. Organoak	49
2. Pertsonak	49
3. Diru baliabideak	49
4. Baliabide materialak	50
5. Etengabeko prestakuntza	50
6. Konpromisoa genero-berdintasunarekin	50
VII. Laburtzapenak	51





Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) jarduera garrantzitsua egin du 2019. ekitaldian. Euskadiko errealitate ekonomiko eta instituzionalaren egunerokoan parte izateko helburua betetzat jo dezakegu. Aurrerapauso hori, erakundearen ikusgarritasunari eta ezagutzari dagokienez, LEA/AVC-k 2019an landu dituen espedienteen kopuruan ondo baino hobeto islatu da.

Hala, 114 gai aztertu dira; LEA/AVC-k, beraz, Euskadiko lehia-erakunde gisa duen jarduera sendotzen jarraitu du, batez ere nabarmentzekoak izan dira merkatuen funtzionamendua bermatu eta sustatzera bideratutako jarduerak. Era berean, LEA/AVCren agerpen instituzionala azpimarragarria izan du, foro espezializatuen antolatetari eta esku-hartzeari esker, bai estatu mailan, bai nazioarte mailan.

Agian, 2019ko ibilbideko gertaera garrantzitsuenetako bat "Lehiaren alorrean betetze-programak ezartzeko gidaliburua" argitaratzea izan da, baita horren inguruan antolatutako jardueren multzoa ere. Gida hau ezaugarri horiekin Estatuan argitaratu den lehenengoa izan da, eta asmo hau du: lehia-

arauen ezagutza zabaltzea eta enpresa-kudeaketan lehia-diziplina ezartzeko komeni den erabakian laguntzea. Izan ere, araudia ez betetzearekin lotutako arriskuek zigor ekonomiko oso garrantzitsuak eta ospearen kostu handia ekar ditzakete.

Halaber, garrantzitsua izan da Ikerketa Zuzendaritzak lehia defendatzeko egindako lana, azterketa juridiko eta ekonomikora bideratua, lehiaren arloko zehapen-prozedura bereziaren berme guztiak aplikatuz.

Azkenik, ezin da aipatu gabe utzi barne-kudeaketaren arloan egindakoa, bai giza baliabideei dagokienez, bai LEA/AVC-ko profesionali prestakuntzari dagokionez, bai tresna digitalak egokitzeari dagokionez. Talde-laneko dinamikek eta prozedurek erakunde autonomo honek duen giza potentzial guztia maximizatzen lagundu dute, zalantzarik gabe.

Alba Urresola Clavero
Lehendakaria



II. Plan Estrategikoa 2019an

2018-2022 aldirako Plan Estrategikoak LEA/AVC kudeaketa inspiratzen duten lau Helburu Estrategikoak (HE) definitu zituen laurteko horretan. HE horiek 10 jarduketa-ildo estrategikoren bidez hedatzen dira, eta horiek, aldi berean, lehentasunezko 38 ekintza hartzen dituzte barne.

Horrela, helburuen lorpena ekintza horien gauzatze-mailarekin lotzen da. Ekintza horiek urtero antolatu eta zehazten dira Plan Estrategikoaren ezarpenari jarraipena ematen dion urteko ekintza-planean.

2019an zehar, LEA/AVC-k **114 espediente**tan lan egin du (30 Defentsa eta 84 Sustapen), aurreko urtean baino % 14 gehiago, eta jarduera horiek egiteko bere eskumen hauetaz baliatu da: zehatzekoa, sustatzekoa, aurkatzekoa, ebazpenak ematekoa eta kontsultakoa.

Plan Estrategikoa 2019an ezartzerakoan eta helburu estrategiko bakoitzaren arabera, hauek dira LEA/AVCren lorpen nagusia:

JARDUKETA GARRANTZITSUENAK

OE 1.

Erakundea sendotzea eta ezagutaraztea



Presentzia aktiboa esparru ekonomikoan, **harreman instituzional estu** baten bidez. **Lehiaren arloan garrantzitsuak diren foroak antolatzea eta horietan aktiboki parte hartzea:** Forum Europa; Lehiaren Jardunaldi Nazionalak; IVAPeko Kontratazioa ikastaroa; Lehiaren konplimenduari buruzko lan-gosaria; Ganbararen ostiralak; VTCEi buruzko EHUren jardunaldia, eta abar.



Proiektu bateratuak MLBNrekin, ELGArekin, UNCTADekin eta Europako Batzordearekin.

OE 2.

Lehia defendatzea merkatuetan



LEKen ebazpena, Gipuzkoako autobusei buruzko espedienteen ezarritako zehapenen motibazioak direla eta.



Zenbait sektoreen gaineko azterketa, garrantzitsuenak hauek izanik: zerbitzu profesionalak, kontratazio publikoa, markak eta merkataritza-banaketa, eta osasun-laguntzako aseguruak.



Bi zehapen-espediente abiaraztea.

OE 3.

Lehiaren sustapena bultzatzea



LEKen 16 ebazpen, sustapenaren alorrean.



EITari buruzko Zuzenbidea aurkaratzea.



Lehiaren alorreko Konplimendu Gida argitaratzea (lehenengoa Estatuan).



Sustapen aktiboa: **27 kontsulta eta araei buruzko 11 txosten.**

OE 4.

Bikaintasun operatiboa lortzea



Bi plaza berri onartzea Idazkaritza Orokorrean.



Antolaketa-ekimenak abian jartzea, eremu hauetan:

- lizitazio publikoa;
- digitalizazio-prozesua;
- webgunea;
- datuak babesteko.

Jarduketa horiek gauzatzeak Plan Estrategikoko 38 ekintzetatik 36tan izan du eragina. Garapen horrek aurrerapena dakar zehaztutako lau

helburu estrategikoetan eta **aurreikusitako ekintza estrategikoen % 94,7an.**




1. Prebentzioaren eta sentsibilizazioaren aldeko apustu irmoa

LEA/AVC-k lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) merkatuetan. Horretarako, sustapen-eskumen propioez gain –txostenetan, azterketetan eta gomendioetan islatzen direnak–, arauak aurkaratzeko gaitasuna du, bai eta irizpen-eta kontsulta-ahalmenak ere.

Horrela, 2019an **84 jarduketatan** lan egin da, aurreko urtean baino % 30 gehiago, **lehiaren kultura** zabaldu eta finkatzeko, eta merkatuen funtzionamendua hobetzeko, erregulazio ekonomiko eraginkorren printzipioek justifikatzen ez dituzten oztopoak ezabatuz: **beharra, proportzionaltasuna eta diskriminaziorik eza**.

SUSTAPENA: JARDUERAK (KOPURUA)



Ohiko jarduketez gain –LEK-k **onartutako 16 sustapen-txostenak** edo dekretu baten aurkaratzea–, berritasunagatik nabarmendu ziren **Compliance** edo lehiaren arloko enpresetan arauak betetzeko programak ezartzearekin lotutakoak. Prebentzio-protokolo horiekiko konpromisoa agerian geratu zen hura hedatzen


laguntzeko bloke integratu bat osatzen zuten ekintza osagarrien multzo bat abian jartzean: lehiaren arloko lehen konplimendu-gida, LEA/AVC-k abiarazitako lehen **kontsulta publikoa**, enpresa-erakundeekin lankidetzan antolatutako bi lan-jardunaldi eta erakunde batek ezarritako borondatezko ekintzei buruzko azterlan bat.



Jorrotutako arloei dagokienez, Agintaritzaren sustapen-jarduketek **administrazio-erregulazioa,**

kontratazio publikoa eta **merkataritza-banaketa** hartu zituzten nagusiki.

SUSTAPENA: JARDUKETAK ARLOAREN ARABERA



2. Txostenak

A. Arauei buruzko txostenak

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legeak (LEAL) 3.5 artikuluan sustapen-eskumenak ematen dizkio LEA/AVCri, baita irizpenak emateko eta kontsultzateko ere, eta horrek ahalmena ematen dio honakoak egiteko:

- merkatuetako lehia mantendu edo berriz ezartzeko proposamenak helaraztea herri-administrazioei.
- lehiari eragiten dioten araugintzako egitasmoei buruzko irizpena ematea, baina ez da loteslea izango.

Funtzio horiek, LEALren 10. artikuluan ezarritakoari jarraituz, LEKek betetzen ditu, eta 2019an zehar, hain zuzen, honako txosten hauek onartzea erabaki du.

a. Arauei buruzko txostenak

- Euskadiko turismo enpresa eta jardueren erregistroaren inguruko Dekretu-Egitasmoa

Euskadiko turismo -enpresa eta -jardueren erregistroaren inguruko dekretu-egitasmoari buruzko txostena presta zezala eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak LEA/AVC-ari.

2019ko otsailearen 15ean LEKek aldeko txostena eman zuen, hortaz, dekretu-egitasmoari, ez zuelako sumatu inongo oztoporik jartzen zuenik turismo-jardueretan hasteko -erregistroan inskribatzeak ez zelako eratzaila eta inskripzioa ofizioz egingo zelako (edo nork berak, hala nahi

izanez gero, Espainiako estatuko beste autonomia-erkidegoren batek edo Europar Batasuneko beste herrialderen batek emandako gaitasuna daukaten turismo-gidarien kasuan).

Esandakoak esan, LEKek azpimarratu zuen egitasmoak ez zituela aipatu ere egiten interes turistikoko enpresa eta establezimenduak, alegia, uztailaren 28ko 13/2016 Turismo Legearen 24.2 artikulua arauak ezarritako eran erregistroak inskribatzeko eskaera egiteko eskubidea ematen zien horiek.

Dekretu hau legearen arau-garapena izangoenez, LEKek adierazi zuen erregistroan aurreikusita eduki behar luke liburu, atal edo epigraferen bat zehaztea inskripzioa egitea eskatzen duten interes turistikoko enpresa eta establezimenduak inskribatzeko.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak kontuan hartu zuen LEA/AVC-k adierazitakoa, eta azken xedapenetako bigarrena ("Interes turistikoko jarduerak") sartu zuen arau-testuan, adieraziz Interes turistikoko jarduerak egiten dituzten enpresa eta establezimenduak, Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen VI. tituluan zehaztutakoak, turismo-enpresa eta -jardueren erregistroan inskribatu ahal izango zirela, haien araudiek xedatutakoari jarraituz.

- 2019ko otsailaren 28ko udalbatzan hasiera batean onartutako Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspena

2019ko martxoaren 8an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) iragarkia argitaratu zen, zeinaren bidez jakinarazten den 2019ko otsailaren 28ko Bilboko Udalbatzaren Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) berrikuspena onartzeko erabakia eta hasi egiten zela herritarrei horren berri emateko berrogeita bost laneguneko aldia, tartean zeudenek euren alde egoki zeritzeten alegazioak aurkez zituzten

2019ko maiatzaren 15eko bileran, LEKek txostena igortzea erabaki zuen alegazio gisa aurkezteko, LEAL, bere 3.3.e) artikuluan xedatzen duen erakunde honen eskumenen artean zera dagoela "Merkatu etako lehia mantendu

edo berriz ezartzeko proposamenak helaraztea herriadministrazioei".

LEKek adierazi zuen ez zela erabilera turistikorako etxebizitzaren tratamendua aipatzen HAPO Antolamenduaren eta Betearazpenaren Justifikazio Memorian.

Eraberean, LEKek Bilboko HAPOren berrikuspenak, hirigintzako araudia zen aldetik, mugak ezartzen zituela erabilera turistikorako etxebizitzak jartzeko, eta horretarako, jarduera ekonomiko bati eragiten zionez, Zerbitzuen Zuzentaraua eta haren transposizioa egiteko araudia bete behar zuen¹.

Aztertutako kanpo-eraginak ikusita, LEK-k beharrezkotzat jo zuen kanpo-eragin negatiboak ekiditeko erregulazio motaren bat ezartzea. Hala ere, iritzi zuen ostatu-jarduera etxebizitza eraikinetako lehen solairuetara mugatzeko neurriaren proportzionaltasuna ez zegoela nahikoa justifikatuta, eta muga hori ezartzeko aldagai hauek ere kontuan hartzekoak zirela: eraikineko etxebizitzaren kopurua, jarduera horrekiko gainerako auzokideen adostasuna edo adostasunik eza, edo auzokide batek zenbat denboratarako bideratu nahi zuen erabilera turistikora bere etxebizitza.

LEKaren arabera, HAPOren xedeak hain murriztaileak ez ziren neurrien bidez lor zitezken, eta hala, adibidez, erabilera turistikorako etxebizitzaren ustiapenarekin lotutako jarduera ekonomikoa ahalbidetu zitezkeen bizitegi-eraikineko gainerako solairuetan:

- Udalak ezarri beharreko denbora-mugarekin, edo
- jabeekideen erkidegoen esku utzita gainerako solairuetan ostatu-jarduera baimentzeko aukera, edo
- gainerako solairuetan ezarritako etxebizitza turistikoen kopuruaren ehunekoa mugatuta, eraikineko etxebizitzaren guztizko kopuruari dagokionez, eta hori Udalak zehaztuko luke.

¹ 23ko 17/2009 Legeak, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzkoak –zeinak Espainiako zuzenbidean partzialki txertatzen baitu 2006/123 (EE) Zuzentaraua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 12koa, barne merkatuaren zerbitzuei buruzkoa (aurrerantzean, Zerbitzuen Zuzentaraua).



Bilboko Udalak onartu zuen ez zela erabilera turistikorako etxebizitzaren tratamendua aipatzen HAPO Antolamenduaren Justifikazio Memorian eta, hura osatzeko, justifikazio hori sartu zuen planean.

- Klima-aldaketaren Legearen aurreproiektua

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako txosten-eskabidea abiapuntua zela LEKek txostena onetsi zuen Klima-aldaketaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.

Ingurumena babesteko erronkari berandu gabe heldu behar geniola, eta klima aldaketa arindu eta hartara egokitzeko neurriak hartu behar zirela kontuan hartuta, beharrezkotzat jo zen arau hau eta ondorengo erregelamendu mailako garapena ezin zirela atzeratu.

Testua aztertuta, eta ingurumenarentzako onuragarriagoak diren irizpideak kontuan hartuta, LEK-k gomendatu zuen «erosketa eta kontratazioa» bateragarriak izatea efizientzia, konkurrentzia eta eskaintzaileen arteko diskriminazio ezarekin.

Halaber, «kontratazio motak» terminoak gaizki-ulertuak ekar zitzakeenez, manuak mota horiek zeintzuk ziren argitu beharko luke.

Azkenik, kontratatzeke debekuen barruan komeni zen aipatzea kontratatzeke debekua, enpresak ingurumenaren aurkako delitu edo falta administratibo oso astunengatik zehapena jaso baldin bazuen eta baita zehapen jakin batzuetarako argitaratzeko aukera.

LEA/AVC-k arau horren jarraipena egiten du, LEKek onartutako txostenean jasotako lehiaren arloko adierazpenen translazioa egiaztatzeko.

- Landa ingurunearen garapeneko lege-aurreproiektua

LEA/AVC-k jakin zuen Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Landa ingurunearen garapeneko lege-aurreproiektua (LIGLA) onartu zuen. Aurreproiektu hori jendaurrean jarri zen Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordearen 2019ko

ekainaren 20ko Ebazpenaren bidez.

LIGLAK euskal landa-ingurunearen garapen jasangarrirako jarduerak gidatuko zituen arau-esparru bat ezarri nahi zuen, eta esparru horrek merkatuetako lehiaren araudia jaso behar zuen.

Txostenean aurreproiektu arauemailea merkatuetako lehia eraginkorraren eta erregulazio ekonomiko eraginkorraren ikuspuntutik aztertzen zen.

Hori dela eta, LEKek gomendatu zuen LIGLaren artikuluetan jasotzea lehiari buruzko araudiaren mende daudela honako jarduketa eta erakunde hauek merkatuei eragiten dietenean:

- Euskal landa-ingurunearen garapen jasangarrirako edozein jardura.
- Administrazio publiko eskuduna, Lurralde Garapeneko Programak (LGPak), Landa Garapeneko Eskualde Programak (LJP), Landa Garapeneko Eskualde Programak eta Tokiko Garapen Planak (LGPak) eta horiek garatzeko egiten dituzten jarduerak onartzen dituenen.
- Hazi Fundazioaren, EAeko sektore publikoa fundazioa, edozein jardura.

LEA/AVC-k arau honen jarraipena egiten du, LEKek onartutako txostenean jasotako lehiaren arloko adierazpenen translazioa egiaztatzeko.

- Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legearen Aurreproiektua

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak txosten-eskabidea egin zuen, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legearen aurreproiektuari buruzkoa.

2019ko azaroaren 12an eginiko bileran, LEK-ek txostena onetsi zuen hainbat gogoeta luzatuz IV. tituluan, zehazki, II. kapituluaren araututako bitartekaritza buruz, batez ere bitartekariaren gaitasunari buruz.

Baita desiragarria litzateke LEA/AVC jakinaren gainean jartzea behin-behineko neurri urgenteak hartzerakoan efizientzia instituzionalaren eta administrazio-lankidetzaren mesedetan,

are gehiago lehiaren arloan ere zilegi ez den jardueraren bat tartean balego.

Azkenik, lehia desleialari buruzko jardunbidetan —lehiaren defentsa eta kontsumoa ukitzen dituztenean— LEA/AVCri jakinaraztea eskatzen zen zehapen bikoitza ekiditeko (“non bis in ídem” printzipioa).

LEKek onartutako txostena jaso ondoren, Kontsumobide erakunde autonomoak jakinarazi zuen agintaritza honek egindako gomendio eta argibide batzuk onartu zituela, hala nola 76. artikuluari buruzkoak (“arlo horretan indarrean dagoen araudiak adierazitako baldintzetan”) eta “non bis in ídem” aukerari eta babestutako ondasun juridikoari buruzko argibideei buruzkoak (enpresak merkatuko gainerako enpresekiko duen posizioa; edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen egoera, helburu desberdinak kontuan hartuta eta zehapen bikoitzik jaso gabe). Lankidetzaraubideari dagokionez, aurreproiektuaren 88.2 artikulua berriro idatzi zen, erakunde publikoen lankidetzaharremanetara hobeto egokitzeko.

Adierazi behar da ez dela lege-testua onartu eta argitaratu izanaren berri izan, eta LEA/AVC-k arau horren jarraipena egiten duela LEKek onartutako txostenean jasotako lehiaren arloko adierazpenen translazioa egiaztatzeko.

-EAEn ibilgailu gidaridunak alokatzeko zerbitzua emateko baldintzei buruzko Dekretuaren proiektua

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko uztailaren 3ko Aginduz, EAEn ibilgailu gidaridunak alokatzeko zerbitzua emateko baldintzen Dekretuaren proiektua izapidetzen hasi zen, testua aipatu Aginduan erantsiz (aurrerantzean, VTC dekretu-proiektua).

LEKek “EAEn ibilgailu gidaridunak alokatzeko zerbitzua emateko baldintzei buruzko Dekretuaren proiektuaren gaineko txostena” izenekoa onetsi zuen 2019ko azaroaren 12an. Bertan adierazten da ezarri ziren baldintzek neurri handian oztopatzen zizkiela Alokairuko Ibilgailu Gidaridunei (VTC) zerbitzuak ematea.

Aztertu ziren neurriak, hau da, alokairuko ibilgailu gidaridun zerbitzua derrigorrez 30 minutuko gutxieneko aurrerapenarekin kontratatzea, ibilgailuak bide publikoan aparkatuta zeudenean eskuragarri zeudela ez bistartzeko betebeharra eta geolokalizazioa erabiltzeko debekua, LEA/AVCren ustetan diskriminatzaileak ziren eta ez zeuden justifikatuta interes orokorreko inolako arrazoiengatik.

Egiaztatuta dago berrikuntza teknologikoek alokairuko ibilgailu gidaridun zerbitzuak aurrez kontratatzeko betebeharra oso denbora laburrean bete ahal izatea posible egin dutela. Bada, hain zuzen ere horregatik, alokairuko ibilgailu gidaridunak taxien aurrean aukera bilakatu dira gailu informatiboak erabili ohi dituzten herritar askorentzat, zeintzuek merkatuan operadore berri bat izatearen onuradunak diren. Erabiltzaile horiek zerbitzuaren berehalakotasuna eta eraginkortasuna baloratzen dute, baita kontratazioaren unean alde aurretik prezio bat adosteak ematen duen segurtasuna ere. Horrenbestez, administrazioak zerbitzua eskuratzeko ordu erdi itxaroteko ezarritako murrizketa, ibilgailua bera non dagoen kontuan izan gabe gainera, erabiltzaileen interesen kontrakoa da.

Dekretu-proiektua lehiaren ikuspuntutik aztertu ostean, LEKek komenigarritzat jo zuen, justifikaziorik ez zuten murrizketak ezabatzea, hartara, marko juridiko egokia ahalbidetzeko, erregulazio ekonomiko eraginkorren printzipioekin bat egin zezan, betiere kontsumitzaileen mesederako.

Abenduaren 20an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu zen “200/2019 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Estatu-mailako baimena (VTC-N) duten ibilgailuak gidari eta hasierako alokatzeko zerbitzua emateko baldintzei buruzkoa”. Horren ondoren, LEA/AVC-k egiaztatu zuen ez zirela ezabatu aipatutako justifikatu gabeko murrizketak, eta horrek aukera eman zuen arau hori aurkaratzeko.



b. Elkargo profesionalen estatutuak

- Arabako Lurralde Historikoko Toki Administrazioeko Idazkari, Kontu-Hartzaile eta Diruzainen Elkargo Ofiziala

Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak txosten bat ematea eskatu zuen Arabako Lurralde Historikoko Toki Administrazioeko Idazkari, Kontu-hartzaile eta Diruzainen Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketari buruz.

Estaturako gaikuntza duten eta Toki Korporazioetan zerbitzu profesionalak ematen dituzten funtzionarioak Toki Administrazioeko Idazkari, Kontu-hartzaile eta Diruzainak dira. Toki-administrazioetan beharrezkoak diren funtzio publiko bete behar dituzte.

Estatutuetan aldaketa aztertu ondoren, LEKek 2019ko otsailaren 15ean eginiko bileran, txostena onartu zuen zera adieraziz:

- Ez zegoela justifikaturik Elkargoari lanbidea antolatu, zaindu, ordezkatu eta defendatzeko eginkizuna egozte. Izan ere, Elkargoari atxikitzea borondatezkoa zen eta ez zen nahitaezkoa lanbidean aritzeko funtzio publikoa zelako eta, beraz, araudi propio batek araututakoa. Bestalde, baliteke Elkargoaren xede berdinak edo antzekoak zeuzkaten beste elkargo profesional batzuk egotea, eta funtzionarioak horietako kide bihurtzea.
- Elkargoari borondatez atxikitzeke ezin zen ezinbesteko baldintza izan lehendakariak gonbitea egitea kategorian horietako lanpostu bat Arabako Lurralde Historikoko toki-korporazio batean betetzeko izendatutako funtzionarioei.

Gauzak horrela, LEA/AVC-k artikulua hauek aldatzea eskatu zuen: 5. artikulua (Elkargoaren helburua), 6.1.a artikulua (Elkargoaren egitekoak) eta 11.1 artikulua (Elkargoan sartzeko prozedura).

LEA/AVC-k arau honen jarraipena egiten du, LEKek onartutako txostenean jasotako lehiaren arloko adierazpenen translazioa egiaztatzeko.

- Bizkaiko Psikologia Elkargoa

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak txosten bat ematea eskatu zuen Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren Estatutuen aldaketari buruz, hain zuzen 25. artikuluari buruz.

2019ko ekainaren 24an eginiko bileran LEKek aldeko txostena eman zuen –boto delegatuaren inguruan lehia askeari ez ziolako eragiten– eta horrez gain Estatutuak aztertu zuen.

Hortik abiatuta, azpimarratu zen Elkargoetako lanbideetan lehia askea egon behar zela, eta uztailaren 3ko 15/2007 Legea, Lehia defendatzeari buruzkoa, (LDL) bete behar zela, bere osotasunean.

Bitartekaritza eta arbitrajei buruz gogoratu egin zen izendapenaren era eta prozedura demokratikoa eta borondatezkoa izan behar zela, eta lehia askea bermatu behar zela elkargoaren eta bere kideen artean, baita kideen arteko ere.

Azkenik, elkargokide motei buruz, elkargokide elkartuen kategorian kentzea eskatu zen, baita Bizkaiko Elkargoan sartzeko eskatutako titulazioaren eskakizuna ere Espainiako beste Psikologia Elkargo Ofizial batean bazegoen.

LEA/AVC-k arau honen jarraipena egiten du, LEKek onartutako txostenean jasotako lehiaren arloko adierazpenen translazioa egiaztatzeko.

- Gipuzkoako Industria-Ingeniarien Elkargo Ofiziala

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak txostena ematea eskatu zuen Gipuzkoako Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialaren Estatutuak zirela eta.

LEKek 2019ko uztailaren 24an egindako bileran aldeko txostena eman zuen, honelako oharrek eginez:

- Elkargoetako lanbideetan lehia askea egon behar zuela eta LDL osorik bete behar zela.
- 6.n) artikuluari zegoenez (Irizpide orientagarriak prestatzea, kostuen tasazioaren eta abokatuen kontuen zinaren ondorioetarako bakarrik) "prestatzea" aditz-formaren orde, "prestatu ahal izatea" jartzea, eta testua zehaztea, kontuan hartuta irizpide orientagarri horiek bakar-bakarrik kostuen tasaziorako eta abokatuen kontuen zinarako zirela, eta doako laguntza juridikoan kostuen tasazioaren ondorioetarako zegozkion ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko.
- 7.3 artikuluari dagokionez (Elkargoko kideen tipología). «C motakoak. Gonbidatu gisa atxikitako elkargokideen kategoria» kentzeko eskaera egiten zen, EAEko 18/1997 Legeak, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoaren 38.1 artikulua eskubide osoko elkargokideak jardunean egon eta jardunean ez egon egoeren artean baino ez baitzuten sailkatzen.

Gipuzkoako Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialaren estatutuak 2020ko urtarrilaren 28ko EHAA argitaratu ziren (2019ko urriaren 28ko Agindua). Erakunde honek egindako proposamen guztiak onartu dira, "Elkargoko kideen tipologiari" buruzkoa izan ezik, eskubide osoko elkargokideak "jardule eta ez-jardule" gisa sailkatzeko soilik proposatzen baitzen, eta beste elkargokide mota batzuk mantendu dira, hala nola: "A motako elkargokideak", "B motako elkargokideak", "Elkargoari atxikitako kideak".

B. Kontratazio publikoa

a. Hezkuntza Sailaren eskola-jantokiak 2019an elikagaiz eta horri lotutako zerbitzuz hornitzeko kontratazio-pleguez

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeak kontsulta bat egin zion LEA/AVCri; hain zuzen ere, 2019an eskola-jantokiak janariz eta horri lotutako zerbitzuz hornitzeko kontratua lizitatzeko pleguen zirriborroaren aurretiazko azterketa eskatzen zion.

Horregatik, 2019ko martxoaren 28an, LEA/AVC-k ohar batzuk eman zituen lizitazioaren baldintza juridikoak eta ekonomikoak lehiaren ikuspegitik ebaluatzeko asmoarekin.

Espedientea bere osoan aztertu ostean, LEA/AVCren balorazioa positiboa izan zen, aldaketak egin baiziren aurreko lizitazioan ezarritako baldintzetan eta betebeharretan –CO2/010/2015 espedientea (txosten horretan ere hobekuntzak egin ziren aurreko lizitazioen aldean)–. Aldaketa horiek lizitatuzaileek parte hartzea ahalbidetzen zuten, sarrera-baldintzak eta -oztopoak murrizten baizituzten.

Eskaintzak baloratzeko irizpideei buruz, txostenean adierazi zen ezin zirela ezarri gertuko produktuei bertakoak ez ziren produktuei baino lehenatasun gehiago ematen zieten esleipen-irizpideak, ingurumen-arloko irizpideen babesean.

Sailkapenari dagokionez, nabarmentzen da, indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen² (SPKL 2017) arabera, zerbitzuen kontratuetan ez zela derrigorrezkoa eta, hortaz, gomendagarria litzatekeela Administrazio Klausulen Partukularren Pleguan (AKPP) azpimarratzea kaudimena sailkapen ziurtagiri bidez egiaztatzea hautazkoa zela.

Azkenik, gomendatu zen lizitazioaren iragarkian zehaztea zein ziren lizitatuzaileek jasan zitzaizkien zigorrek kolusio-jokabideak edota *bid rigging* eginez gero.

² 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.



b. Gorbeiko Parke Naturaleko ameztian baso-biodibertsitatea sustatzeko zerbitzuak kontratatzeko lizitazioan eskatzen diren baldintzak

Partikular batek zalantzan jarri zituen Fundación HAZI Fundazioak eskatzen zituen gaitasun tekniko edo profesionalari buruzko baldintzak, lizitazio honetan parte hartzeko: Gorbeiko parke naturaleko ameztian (Arabako aldean) parkea karakterizatuz eta kudeaketa-plan bat landuz baso-biodibertsitatea sustatzeko zerbitzuak kontratatzeko. Azaldutakoaren arabera, eskatzen ziren baldintzek merkatu gatibu bati bide ematen zioten basogintzaren edo biologiaren arloan titulu jakin bat zuten operadoreentzako, arlo horietan lehenago lan egin bazuten, eta sarrera eragozten zieten aurretiko esperientziarik ez zuten eta bestelako tituluak zituzten operadoreei.

LEK-k 2019ko apirilaren 15eko bileran Fundación HAZI Fundazioak parte hartzeko eskatutako gaitasun baldintzak aztertu zituen eta SPKL 2017k xedatutakoarekin benetan bat zetozela ondorioztatu zuen, nahiz eta horien beharrari eta proportzionaltasunari buruzko argudio sendorik ez egon.

Halaber, LEK-k erantsi zuen Gorbeia Lehiaketan lehia biziagoa egon zitekeela —bi enpresa aurkeztu ziren— honako hau kontuan hartuz gero: kaudimen ekonomiko eta finantzarioari zegokionez eskatutako baldintzak egiaztatzeko beste bide batzuk onartzea, hala nola, ondare garbia, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea edo arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko aseguru.

Era berean, gaitasun tekniko edo profesionalari zegokionez lehia biziagoa egon zitekeela honako hau kontuan hartuz gero:

- Antzeko xedea zuten lanen egiaztapena, aurreko hiru urteetako epea baino aldi luzeagoa onartzea.
- Beste egiaztapen-bide batzuk aukeratzea, edo zenbatekorik ez aipatzea, eskakizun ekonomikoak gainjartzea ekiditeko.
- Giza baliabideen kualifikazioaren egiaztapenari buruzko idazketa irekiagoa egitea.

c. Kontratazio publikoan genero-klausulak aplikatzea eta horrek lehiari dituen ondorioak

LEK-k txostena onartu zuen 2019ko maiatzaren 15ean eginiko bileran honi buruz: kontratazio publikoan genero-klausulak aplikatzea eta horrek lehiari dituen ondorioak.

Txostenean gogoratu zen Genero Berdintasunaren Lege Organikoan jasotako agindua eta berdintasunari buruzko beste arau batzuk gorabehera, ezin zirela saihestu kontratatzeke araudiak ezarritako baldintzak: erabakitzeke askatasun mugagabea ez ematea; berariaz aipatzea lizitazio-iragarkian edo pleguetan; kontratuaren xedearekin lotuta egotea; eta Europa Batzordearen oinarritzko printzipioak errespetatzea.

Hala bada, garbi dago kasuan-kasuan aztertu behar dela irizpide sozial jakin bat eta kontratuaren xedea lotuta dauden. Horretarako, ezinbestekoa da kontratazio-espeditentean txertatzea aipatutako harremanaren justifikazioa.

Ondorioz, genero-ikuspegia duten esleipen-irizpideak ezartzeak ez luke, berez, lehia mugatu behar, ez baitu lizitazioan sartzeko hesirik sortzen. Balio jakin batzuk (genero-berdintasuna, esaterako) sustatzeko klausula sozialak sartzeko onargarria izango da baldin eta hartutako neurriak bide ematen badu gizarte-helburuok kontratazio publikoa arrazoitzen duten helburu nagusiekin batera erdiesteko, eta hala jasoko da pleguetan. Edozelan ere, ezarritako klausulek baldintza berberetan sartzeko aukera eman behar diete lizitatuzaile guztiei, eta ezin izango zaizkio oztopo bidegaberik ipini lehiari.

d. Mañueta, Eltziego, Guardia, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Samaniego eta Villabuena Arabako Udaletako kontratazio txikia

LEKek 2019ko maiatzaren 28an artxibatu zuen LEA/AVC-122-ZEH (Arabako Errioxako Arkitektoak) zehapen-espeditentea, LDL urratu izanaren zantzurik ez zegoelako. Hala ere, LEK-k ikusi zuen lehia askea oztopatzeko moduko jardunbide batzuk zeudela kontratazio txikian. Hori dela eta, LEK-k, bere sustapen-eginkizunen

esparruan, txostena egin zuen udal hauetako kontratu txiki batzuei buruz: Mañueta, Eltziego, Guardia, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Samaniego eta Villabuena Araba.

LEKek egiaztatu ziren 2000-2018 aldian indarrean zegoen kontratazio-arloko araudi guztiak honako hau ezarri zuela: kontratu bat ezin zela zatitu haren zenbatekoa murrizteko eta, horrela, publikotasun-betekizunak edo esleipen prozedurari zegozkionak saihesteko.

Txosten honen xede ziren udaletan aztertutako kasuetan, ikusten zen kontratu asko udalek aurreikus zitzaizkien prestazioen ondorio zirela —urbanizazioak, konponketak eta abar—; izan ere, kontratazioen historian behin eta berriz errepikatzen zen zenbait arkitektura-zerbitzuri erantzuteko beharra. Hori dela eta, udalek, legearen espiritua eta agindua bermatze aldera, xede horrekin lotutako unitate bat eratu beharko zuten, eta, ondorioz, kontratu bakar batean esleitu beharko zuten, eta dagokion esleipen-prozedurari jarraitu.

Hain zuzen ere, LEKren arabera, kontratu txiki bat zuzenbidearen aurkakoa zen baldin eta kontratazio organoak, kontratua izapidetzen hasteko unean, jada baldin bazekien behar bezala definitutako eta urtez urte gauzatu beharreko prestazio unitario bat kontratatu behar zela, bai eta prestazio hori, egin behar zela jakin ez arren, arrazoiz aurreikusteko modukoa bazen ere. Eta, horretarako, kontratazioa behar bezala planifikatu behar zen. Plangintza horrek, kontratazioaren oinarri ziren printzipioak hobeto errespetatzen laguntzeaz gain, funts publikoen erabilera eraginkorra bermatzen laguntzen zuen.

Ondorioz, udalek aukera izan zuten eta, beraz, haien betebeharra izan zen plangintza egoki bat egitea arrazoiz aurreikus zitezkeen jarduketak egiteko, eta jarduketa horien proiektu-idazketa eta obra-zuzendaritza kontratu bateratuetan kontratatzeke; hala, eskaintza anitza izango zen eta, ondorioz, funts publikoak eraginkortasun handiagoz erabiliko ziren, lehia askeari inolako oztoporik jarri gabe.

Horrenbestez, eta egoera hori zuzentzeko, kontratu txikia lege-aurreikuspenei jarraikiz erabil zedin, LEKek Mañueta, Eltziego, Guardia, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Samaniego eta Villabuena Arabako Udalei gomendatu ziren lehia askerako oztopoak kentzeko udal horiek eskatutako arkitektura-proiektuak eta obren zuzendaritza proiektuak idazteko merkatuan.

C. Beste jarduera ekonomiko batzuk

a. Tokiko azoka eta merkatuetako saltokien esleipenari buruzko II. Txostena

LEKek txosten bat eman zuen 2018ko maiatzaren 22an EAEko udalerrietan noizean behin edo aldizka egiten diren merkatuetako saltokien esleipenarekin lotuta. Hala ere, LEA/AVC-k EAEko merkatu horietan parte hartzerik ez zuten eragile ekonomikoen kexa eta salaketak jasotzen jarraitu zuen. Horregatik, beste txosten bat ematea erabaki zuen, 2019ko uztailaren 14an. Bertan, alde batetik lehendabiziko txostenean jorratutako arloetan sakontzen zen, eta, bestetik, Bilbon antolatutako azoka eta merkatuen kasua zehatzago aztertzen zen.

Txostenean jasotako gomendioak honako hauek izan ziren:

- Saltokiak hautatzeko prozedura udal bakoitzak zehaztu behar zuen, betiere lehia-araudia eta gardentasunaren, inpartzialtasunaren, diskriminazio ezaren eta publikotasunaren irizpideak errespetatuz.
- Parte hartzeko baldintzekin lotutako informazio guztiaren zabalkundea erraztu eta sustatzea. Hori horrela, deialdiaren oinarriak parte-hartzaile guztien aukera berdintasuna bermatzen diseinatu behar ziren, irizpide argi, erraz, objektibo eta auresangarriekin eta bakoitzari zegokion puntuazioa zehaztuz. Era berean, eskatzaile guztiek jaso beharko lukete azoketan parte hartzeko egindako eskaeraren erantzun zehatza, horrela zegokionean, kanpoan zergatik geratu ziren azalduz.

- Edozein kasutan, hautaketa-prozesuak ezingo zen nazionalitate-, egoitza- edo bizileku-arrazoiengatik diskriminatu.
- BBK Fundazioari eta Vital Fundazioari zituzten hautaketa irizpideak berrikusi eta diskriminatzaileak ez ziren beste batzuk ezartzeko gomendatzen zitzairen.
- Merkatuak antolatzeako arduradunak udalerriko elkarteak edo beste erakunde batzuk baziren, postuen esleipen prozesua Udalak egin edo/eta ikuskatu behar zuen, bera baita lurzoru publikoan egindako ekitaldi baten antolakuntzaren azken erantzulea.
- Bilboko Udalari gomendatzen zitzaion Espazio Publikoaren Ordenantza alda zezala, zehazki Noizbehinkako azokak izeneko III. kapituluko 3. Atala (Noizbehinkako beste salmenta batzuk). Zehazki, saltzaileak hautatzean publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagoka printzipioak bermatzeko egin behar zuen aldaketa, eta, betiere, Udalak berak hartu behar zuen hori betetzen zenaren erantzukizuna.

b. Euskal enpresen partaidetza duten kontzentrazioei buruzko txostena

LEK-k txostena eman zuen, 2019ko uztailaren 24an eginiko bileran, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) baimendutako kontzentrazioetan euskal enpresen parte-hartzeari buruz.

Txostenaren xedea zen jakitea zer-nolako eragina izan zuten enpresen kontzentrazioek EAEko industria-sarean, eta horren arabera baloratzea ea egokia zen LEA/AVC-k aurretiko azterketa bat egitea lehiaren ikuspegitik kontzentrazio horien ondorioei buruz.

Horretarako, lehenik eta behin, kontzentrazioei buruzko araudia berrikusi zen, alderdi hauei zegokienez: kontzeptua, kontzentrazio motak, jakinarazpen-atalaseak eta kontzentrazioak kontrolatzeko prozedurak.

Gainera, euskal enpresek parte hartu zuten MLBNk baimendutako kontzentrazio eragiketak aztertu ziren, hain zuzen ere, azken 5 urte eta

erdian, 2014-2019 denboraldian (ekainera arte) egin zirenak. Horrela, egiaztatu zen MLBNk denbora tarte horretan, guztira 482 kontzentrazio eragiketa baimendu zituela, LDL-k aurreikusitako atalaseak gainditu ondoren. Baimendutako eragiketa horietatik 44tan euskal enpresek hartu zuten parte, hau da, ebazpenen % 9,13an, eskuratutako enpresa edo enpresa eskuratzailer gisa. Eragiketa guztiak lehen fasean onartu ziren, horietako bat konpromisoekin.

Enpresen kontzentrazio-eragiketak kontrolatzeari dagokionez, legeak oso eskuhartze mugatua ahalbidetzen die agintaritza autonomikoei; hala, bigarren fasean baimentzen diren eragiketetan soilik eman dezakete aholkua. Alabaina, LEKren ustez, kontzentrazio-eragiketa batek autonomia-erkidego jakin baten eremuan duen eragina ez dago eragiketaren ebazpen fasearen menpe; beraz, kasuan kasuko agintaritza-autonomikoari eskumena eman beharko litzaioke txostena prozeduraren bi faseetako edozeinetan eman ahal izateko.

LEAren iritziz, beharrezkotzat jotzen zen LDLren 57. artikulua aldatzea, eraginpeko autonomia erkidegoari txostena lehen fasean eskatu ahal izateko, bigarren faseko instrukzio eta ebazpenean aurreikusita zegoen gisa. Hala, lehiaren agintari autonomikoen parte-hartzea lehia defendatzeko araudian bertan geldituko litzateke bermatuta, eta elementu objektiboekin lotuko litzateke, hala nola kontzentrazio-eragiketak autonomia-erkidego horren eremuan zuen eragin nabarmenarekin.

3. Aurkaratzea

Kasu askotan, sektore publikoaren beraren jarduerak sortzen, mantentzen edo areagotzen ditu lehia askerako oztopoak, ahal publikoak erabiliz, eta, horrela, eragotzi egiten du behar diren efizientziak hedatzea.

Kasu horietan eta LEALren 3.4 artikuluan aurreikusitako ahalmenen arabera, LEA/AVC **legitimazio aktiboa** du ondoko egintza hauek aurkatu egiteko administrazioarekiko auzien jurisdikzioan: administrazio-zuzenbideari loturik dauden Euskal Autonomia Erkidegoko

herri-administrazioen (erkidegoko, foru- eta toki-administrazioak) egintzak eta legea baino beheragoko xedapen orokorrak, horien bidez merkatuko benetako lehiari oztopoak jartzen baldin bazaizkio.

Jarraian, Agintaritzak aurkaratutako araei buruz emandako epaiak edo arauak aurkartzeko LEKek hartutako erabakiak azaltzen dira.

A. Bilboko Hiri Antolaketarako Plan orokorraren barruko 7. Ordenantzaren aldaketa, Zabalguneari dagokiona

2017ko otsailaren 10ean, LEA/AVC-k administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren (EAEAN) Administrazioarekiko Auzien Salan, Bilboko Udalaren 2016ko azaroaren 24ko Erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, behin betiko onartu zen HAPOn Zabalguneko zonarako 7. ordenantzaren aldaketa. LEA/AVCren iritziz, ostalaritzako, autozerbitzuan elikagaietako eta jokoko establezimenduei eragiten zieten murrizketak sartzen zituen arau horrek, eta murrizketak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 49. eta 56. artikuluen aurkakoak ziren, kokatzeko askatasunari eta prestazioa askatasunez emateari buruzkoak.

EAEANK, 2019ko urtarrilaren 25eko epaian, partzialki baietsi zuen errekurtsua, eta kreditu-erakundeen eta aseguru-konpainien distantzien erregulazioari buruzko artikuluen deuseztasuna adierazi zuen. Halaber, ostalaritza-establezimenduen arteko gutxieneko distantzien erregimenari buruzko errekurtsua ezetsi zuen, ulertzen baitzuen kasu horretan "planifikatzailearen erabakia datu zehatzetan oinarrituta dagoela, tarteak eta eremuak haztatzen dituela, eta egokia dela helburu horretarako".

B. Dekretua 117/2018, uztailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa

2019ko urtarrilaren 24an LEA/AVC-k administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen EAEANren Administrazioarekiko Auzien Salan honako hauen aurka: 117/2018 Dekretuaren 10. artikulua eta 1. eranskinaren 1.a) apartatua eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren Erabakia, abenduaren 3koa, LEA/AVC-k artikulua hori eta eranskina aldatzeko egindako errekerimendua ezesten duena.

Izan ere, errekurtsuaren arrazoia izan zen **jarduera erreserbatu** zitzaiela profesional jakin batzuei. Gauzak horrela, beste profesional batzuk bazterturik zeuden sartzeko eta jarduteko, guzti hau zuzenbidearen aurkakoa izanik.

Errekurtsoa ebazteke dago.


4. Kotsultak

Ekonomia-, elkarre- eta administrazio-jardueren eguneroko kudeaketan edo kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa produktuak eta zerbitzuak kontratatzean, hainbat galdera eta zalantza sortzen dira lehiari buruzko araudiarekin bat ote datozen jakiteko.

Kasu horietan, kotsultak egin dakizkioke LEAri, hainbat bide erabiliz: posta, telefonoa, webgunea eta posta elektronikoa.

2019an, 27 kotsulten% 50 baino gehiago enpresetatik eta profesionaletatik jaso dira, eta, era berean, merkataritza-banaketaekin, elkargo profesionalekin eta hainbat zerbitzuekin lotutako arazoak izan dituzte abiapuntu.

KONTSULTEN SEKTOREKA ETA KONTSULTAGILE-MOTAKA (%)



Batzuetan, gaia eta interesa direla eta, kontsulta horiek sustapen-txosten batean jaso daitezke, eta, are gehiago, zehapen-espeditante batean bideratu,

baldin eta tratamenduaren ondorioz lehiari kalte egiten dioten zantzu nahikoak badaude.

Gutxienerako prezioei buruzko kontsulta

Enpresa batek bere banatzaileei online salmentetarako gutxienerako prezioak ezartzeko aukerari buruz galdetzen du.

LDLk debekatu egiten ditu prezioak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzeko akordioak. Era berean, erosleak birsalmenta-prezio finko edo minimo bat ezartzea ezin da inoiz ulertu lehiakide ez direnen arteko garrantzi gutxiagoko jokabide gisa, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren arabera³.

Birsalmenta-prezioak finkatzean handizkako operadoreak txikizkako banaketak produktuak saldu ahal izateko prezioak finkatzen dizkio.

Birsalmenta-prezioak finkoak, minimoak, maximoak edo gomendatuak izan daitezke. Gehieneko eta gomendatutako prezioek ez dute arazo handirik sortzen, betiere txikizkako enpresa haietatik aldendu badaiteke.

Hala ere, prezio finkoak eta minimoak lehiaren murrizketa larria dira. Gutxienerako prezioak ezartzean, txikizkako tartean prezioen lehia ezabatzen da, prezioa eragile ekonomikoak merkaturan lehiatzeko oinarritzko elementuetako bat denean. Izan ere, prezioak finkatzea da lehiaren esparruko jokabide arau-hausleen artean kaltegarriena: operadore ekonomikoek libreak izan behar dute merkaturako prezioak eta beste salmenta-baldintza batzuk zehazterakoan.

Ondorioz, **gutxienerako prezioak ezartzea** LDLren arau-haustea da eta **debekaturago**.

³ Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretua.

5. Gidak, azterlanak eta kontsulta publikoak

2019an, LEA/AVC-k lehiaren arloko araudia betetze-programen ezarpena zabaldu eta lagundu zuen, enpresaren barruan lehiaren kultura eraginkorra finkatzeko helburuarekin.

Horretarako, besteak beste, lehenengo Betetze-gida garatu zuen. LEK-k 2019ko maiatzaren 28ko bilkuran onartu ondoren, kontsulta publikoko oinarria izan zen, eta haren ekarpenak Gida horri gehitu zitzaizkion separata baten bidez, guztia gure webgunean eskuragarria izanik⁴.

Era berean, LEKek, organo aholku-emaile gisa, erakunde baten Compliance-programari buruzko azterlan bat egin zuen.

A. Azterlana, Euskadiko banku fundazioen arteko ekintza itunduaren kontzeptuari buruzkoa

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak (BBK) erakundeak kontsulta bat luzuatu zion LEA/AVCri, hain zuzen, ezarria nahi zuen araua bete eta gobernu onerako programaren egokitasunari buruzkoa eta baita programa hori osatzeko aukera ere, hala zegokionean, lehiaren ikuspuntu bat txertatuz.

LEA/AVC-k azterlana egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoan lehia defendatzearekin zerikusia duten arloetan organo aholku-emailea zen aldetik.

Ikerlanean zehar adierazi da BBK-k zergatik ez zuen jarduten Kutxabank, S.A.k (Kutxabank) partaidetza duten gainerako banku fundazioekin era itunduan. Are gehiago, 7. atalean jasotako jardunbide onak maximoen katalogotzat hartu ziren, zeren BBK-k araudia betetzen zuela erabat egiaztatzen zen bere kudeaketan.

Halere, gobernu korporatiboen protokoloetan sartzea borondatezkoa izanda, 8. atalean iradokitako praktika batzuk ezarri gero, asko indartuko litzateke BBK-k banku fundazioen artean ez itunik izateko eskakizunen arabera jarduten duen alderdia.

⁴ https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/guias_gidak/eu_gidak/Lehiaren%20alorrean%20betetze-programak%20ezartzeko%20gidaliburua.pdf

B. Lehiaren alorrean betetze-programak ezartzeko Gidaliburua

Gidaliburua honen helburua operadore ekonomikoen jardura babestea eta orientatzea da, **lehiaren araudia betetzen** dela bermatzeko eta, horrela, enpresa **ondo gobernatzen** laguntzeko.

Lehiaren Zuzenbidea gero eta konplexuagoa zela abiapuntutzat hartuta, LEA/AVC-k zera bilatu zuen: segurtasun juridiko handiagoa ematea arau-egituraren aplikazioari –batez ere, Estatu eta Europa mailan–, sektore ekonomiko gehienei zeharka eragiten baitzien.

Gidaliburua bi multzo handitan egituratuta dago: lehena “Lehia askearen garrantziaz jabetzea”, lehia defentsaren oinarritzkoa kontzeptuak azalduz, eta bigarrena “Lehiaren alorreko betetze-programa”, barne kontrol eta zainketa sistema ezartzera zuzendutakoa, enpresari, ahal den neurrian, lehia arloko legez kanpoko jarduketak egitea saihesteko edo, hori ezinezkoa bada, arriskua nabarmen murrizteko eta azkar hautemateko aukera emateko.

Gida adibide zehatzekin eta beste egoera erreal batzuetara estrapolatzen errazak direnekin ilustratzen da, helburu hauekin:

- lehia askearen aurkakoak diren jarduketak agerian jartzea, arreta berezia eskainiz enpresen errealitatean ohikoenak direnei.
- lehia askearen aurkako jardunbideek enpresei eurei dakarzkieten arriskuak identifikatzea.
- jarraibide batzuk ematea, enpresek lehiaren inguruko araudiaren urraketarik egin ez dezaten, barne-protokoloak jasoko dituzten betetze-programak eginda, aplikatu eta gainbegiratukoak.



1.705 enpresa, abokatu-bufete, elkarte eta elkargo profesionalak eta unibertsitateak posta elektronikoaren bidez jaso zuten, eta inprimatutako ale bana helarazi zitzaien 2019ko urriaren 31ko "Lehia Compliance" jardunaldian parte hartu zutenei.



C. Kontsulta publikoa: Lehiaren alorrean Compliance programak

Gida egin ondoren, LEA/AVC-k kontsulta publiko bat egin zuen Lehiaren Complianceri buruz, eta prentsan, web-orrian eta sare sozialetan zabaldu zen.

Kontsulta publikoaren euskarria Compliance Gida izan zen, eta **eragile ekonomiko** publiko eta pribatu guztiek operadoreek lehiaren araudia merkatuan aplikatzeari eta ezartzeari buruz duten **pertzepzioa ezagutzea** izan zen helburua.

Kontsulta publikoa 2019ko uztailaren 1etik irailaren 4ra egin zen, eta 17 erakunde hartu zuten parte:

- 6 enpresa ekoizle/merkatuzatzaile
- 3 elkargo profesionalak
- 2 Zerbitzu-bulego juridikoetako enpresa
- 2 Unibertsitate
- 1 enpresa elkarte
- 1 kontsumitzaile
- 1 Zuzenbide publikoko korporazioa
- 1 Nazioarteko erakunde

Ekarpen horiek, behar den konfidentzialtasuna errespetatuz, Gidan sartu zen separata batean jaso ziren.



6. Lehia ikastetxeetan

A. Unibertsitatea

a. Abokatutzaren Jarduerako Masterra (Deustu)

2019ko azaroan eta abenduan, LEA/AVC-ko lehiako arduradun batek Lehiaren Zuzenbidea irakasgaia eman zuen Abokatutza Jarduerako 2019/2020ko unibertsitate-masterrean, euskaraz. 6 ordu iraun zuen, 3 egunetan banaturik.

LEA/AVCren ustez, ezinbestekoa da euskal abokatuen promozio berriek trebakuntza sakona izatea lehiaren zuzenbidearen arloan. Horrek, enpresa eta profesionaleri emandako aholkularitza juridikoaren bitartez edo lehiaren kontrako jardueren salaketaren bitartez, EAEko merkatuetako lehia askearen egoera hobetzea ekarriko du eta, ondorioz, euskal herritarren ongizatea areagotuko du.

b. Praktika programak

LEA/AVC-k lankidetzak-hitzarmen batzuk sinatu ditu zenbait unibertsitateekin, lehiaren defentsari berezkoak zaizkion eremuetan sakondu nahi duten ikasleei prestakuntza praktikoa emateko.

Izan ere, International Legal Experience-Bridge programaren esparruan, bikaintasun akademikoko prestakuntza osagarria ematea helburu duena, bekadun bat parte hartu du Agintaritzak honetako ikaskuntza praktikoko esperientzia batean.

Agintaritzak eskerrak ematen dizkio parte hartu duten ikasleari beren lanagatik, esfortzuagatik eta inplikazioagatik.

B. Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak

EAEko bigarren hezkuntzako ikastetxeek LEA/AVC laguntza izateko aukera dute, lehiari eta hura mantentzeko eta sustatzeko beharrari buruzko formazioa eskuratzeko.

2019an, euskaraz eta gaztelaniaz emandako saio teoriko-praktiko horietan, 150 ikaslek parte hartu zuten, honako ikastetxe hauetan:

- CPEIPS ASKARTZA CLARET HLBHIP
- CPEIPS CALASANCIO HLBHIP
- CPEIPS KIRIKIÑO IKASTOLA HLBHIP
- CPEIPS PUREZA DE MARÍA HLBHIP
- POLITEKNIKA TXORIERRI




IV. Lehia Defendatzea

1. Zehatzeko ahalmenaz baliatuz


Lehiaren defentsan, LEA/AVC-k lehia askearen aurkako jokabiderik ote dagoen ikertzen du, eta zehapen-prozedurak hasi, bideratu eta ebazten ditu helburua duten jarduera hauetan: **kolusiozko jokabideak, nagusitasunezko egoeraren abusuak eta interes publikoari eragiten dioten ekintza desleialen ondorioz lehia askea faltsutzea.**

2019an, **30 kasu** landu dira, eta kontratazio publikoak eta mota desberdinetako zerbitzuek aztertutako kasuistiken erdia baino gehiago hartu dute.

DEFENTSA: PROIEKTUAK (KOPURUA)



SEKTOREAK 2019





Prozedura arautua hasitakoan, elkarren segidako bi fase aurreikusten dira, eginkizun desberdinak dituzten bi organo bereiziren aurrean gertatzen direnak: instrukzioaz arduratzen den Ikerketa Zuzendaritza (IZ) eta LEK, hura baita ebazpen-organoa. Azkenik, LEKren ebazpenak epaitegien berrikuspenaren xede izan daitezke.

Jarraian, organo horien jarduerak zehazten dira.

2. Ikerketa Zuzenbideak eginikoak

IZk, besteak beste, honelako funtzioak betetzen ditu:

- organo eskuduna izendatzeko prozedurak aplikatzea, Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legean (LCC) ezarritakoari jarraiki
- ikuskapenak egitea
- zehapen-espeditenteak ireki eta haien instrukzioa egitea, eta LEKari ebazpen-proposamena edo artxibatzekoa helaraztea
- LEKren ebazpenetan ezarritako betebeharrak betetzen eta gauzatzen direla zaintzea

Agintaritzaren beraren ikerketetan eta hirugarrenek planteatutako salaketetan oinarritzen dira IZren jarduketak. Errukitasuna-eskaera bat ere aurkez daiteke. Horren bidez, kartel bat osatzen duten enpresek aukera izango dute debekatutako akordioan parte hartzeagatik legokiekeen isuna ordaintzetik salbuesteko edo isunaren zenbatekoa murrizteko.

IZk abiarazten dituen atariko eginbideek nahikoa zantzu erakusten badute, ikerketa erreserbatu bat hasiko du, baita inplikaturako enpresen

ikuskapenarekin ere, zehapen-espeditentea hasia justifikatzen duten inguruabarrak gertatzen diren alde aurretik zehazteko. Jarduketa horiek, MLBNri espeditentea helarazten dioten jarduketekin batera –Agintaritza honen eskumenekoak ez direlako– ez dira publikoak.

A. Espeditenteak esleitzea

LCC legearen lehenengo artikuluan aurreikusitako esleipen-sisteman ezarritakoaren arabera, 2019an 4 gai bidali zitzaizkion MLBNri, jokaerek EAEdo bano eremu handiagoari eragiten ziotela iritzita. Jakinarazitako jarduerak ostalaritzari, garraioari eta hainbat zerbitzuri eragiten zieten.

Gainera, 2 espeditente gehiago helarazi zitzaizkion MLBNri, telekomunikazioak eta energia erregulazio-gaietan zituen eskumenen arabera.

B. Zehapen-espeditenteak ireki eta haien instrukzioa egitea

Zehapen-espeditente bat hasteak ez du esan nahi amaiera dagoeneko erabakita dagoela. Hasieradatik 18 hilabeteko epea dago espeditentearen instrukzioa egin eta ebazteko.

2019 urtean zehar bi zehapen-espeditente hasi dira:

Irekotako espedienteak			
Zenbakia	Izena	Irekitze data	Espedientatuak
174	Birziklatzeko olioien bilketa	2019/02/25	RAFRINOR, S.L. ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L.
303	Meteorologia-radarak	2019/12/19	ADASA SISTEMAS, S.A.U. AFC INGENIEROS, S.A. ATOS IT SOLUTIONS AND SERVICES IBERIA, S.L. DTN SERVICES AND SYSTEMS SPAIN, S.L. INSTALACIONES Y EQUIPAMIENTOS METEOROLÓGICOS, S.L. MCV, S.A.

C. Zaintza

IZk egiaztatu behar du LEKek ezarritako betebeharrak ebazpenetan xedatutakoaren arabera betetzen direla, ebazpen horiek betearazleak izan ondoren.

Zaintza horretan –LEKaren ebazpenek ondorio guztiak zabal ditzaten lortzea du helburu–, egiaztatu egiten da merkatuan lehia eraginkorra berrezartzeko ezarritako jarduketak egin direla eta ezarritako zehapenak ordaindu direla.

2019an zehar espediente hauek zaindu dira:

- Arrasateko autoeskolak
- Arabako arkitektoen lan-poltsak
- Gipuzkoako arkitektoen lan-poltsak
- Bizkaiko arkitektoen lan-poltsak
- Arabako Haginlarien Elkargoa
- Arabako Graduatu Sozialen Kolegio Ofizial Prestua
- Eskola jantokiak
- Egoitzetarako farmazia-zerbitzuak
- Gipuzkoako bidaiarien garraioa

3. Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpenak

IZren proposamen bat LEKri helarazi ondoren, haren ebazpena espedientea artxibatzea, zehapen-ebazpena edo itundutako amaiera izan daitezke.

Bere eskumenak gauzatzeko orduan, LEK ondokoak egiteko aukera izango du: isunak jarri, zuzendaritzako pertsonalarentzako barne; egin beharreko jokabideak edo debekuak ezarri, hala nola sektore publikoarekin kontratatzea; hertsatzeko isunak jarri, ebazpenetan ezartzen diren betekizunak direla-eta, edo laguntzeko betebeharra ez betetzeagatik; zuhertasunezko neurriak eta nahitaez betearaztekoak hartu; eta isunak ordaintzetik salbuestea edo isunaren zenbatekoa murriztu.

Jarraian, LEKek 2019an adostutako ebazpenak jasotzen dira. Ebazpen horiek oso-oso-rik kontsulta daitezke gure webgunean: www.competencia.euskadi.eus.



A. Osasun-laguntzako aseguruak

2018ko urtarrilaren 12an, IDCQ HOSPITALES Y SANIDAD S.L.-k (QUIRÓNSALUD) salaketa aurkeztu zuen, IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS (IMQ SEGUROS) konpainiaren aurka. Salatzailearen hitzetan, IMQ SEGUROSek behin eta berriz eta justifikaziorik gabe esan zion ezetz, Bizkaian, itun hau egiteari: QUIRÓNSALUDek Erandion duen ospitalean edozein zerbitzu sanitario ematekoa; salatzaileak adierazi zuenez, itun partzial bat baino ez zuen onartu IMQ SEGUROSek QUIRÓNSALUDekin: 2017ko abuztuaren 28an; hots, Erandioko ospitalea ireki eta handik ia 8 urtera.

LEA/AVC-k egindako eta izapidetutako jarduketak artxibatzea erabaki zuen. Izan ere, nahiz eta IMQ nagusitasunezko egoeran egon Bizkaiko laguntza sanitario pribatuko aseguruaren merkaturan, LEA/AVCren ustetan, ez zuen nagusitasunezko egoera horrez abusatu.

Horrela, LEK-k kontuan hartu zuen aseguru-etekek zerbitzu sanitarioak emateko berezko baliabideak izan ditzaketela, IMQ SEGUROSen aseguratu-zorroa ez dela ezinbesteko baliabide bat, eta ez zela hautematen klinika pribatuekin zenbait espezialitate itundu nahi ez izatearen arrazoia lehiakideak baztertzea zenik. Beraz, LEKren ustez ez zegokion enpresa-aukera hori lehiaren aurkako jokabidetzat jotzea.

Bestalde, GRUPO IMQkoak ez diren operadoreen arteko diskriminazioari dagokionez, itun-akordio guztiak aztertu ondoren, ez zen ikusten diskriminazioa zegoenik haien artean, IMQ SEGUROSek espezialitate berberak itundu zituelako horietako bakoitzarekin.

Salatzaileak, LEKen Ebazpenaren aurka auzi-errekurtsoa jarri zuen EAEANren administrazioarekiko auzietarako salan, eta, 2019an ez da epairik eman.

B. Gipuzkoako bidaiarien garraioa (Ebazpen osagarria)

Zigortutako hainbat enpresa administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuten EAEAN aurrean

LEKek 2017ko 27an emandako ebazpenaren aurka. Ebazpen horretan ezarri zen AVITRANSek eta hainbat enpresek arau-hauste bakar eta jarraitu bat, oso astuna, egin zutela, LDLren 1.1. artikuluan debekatutako honako jokabide hauek gauzatu zituztelako: a) Tarifak finkatzea garraio erregular bereziko merkatuetan, haren modalitate ezberdinetan (lizitazio publikoak eta kolektibo pribatuak) eta/edo eskatu ahalako garraioan; eta/edo erabaki horiek gauzatzen saiatzea, eraginkortasunez betetzeko sistema bat ezarriz, eta beharrezkotzat jo duenean, erabaki horiek betetzeari uko egin dioten enpresei boikota aplikatuz; eta b) Merkatuak banatzea garraio erregular berezian, haren modalitate ezberdinetan (lizitazio publikoak eta kolektibo pribatuak) eta/edo eskatu ahalako garraioan; eta/edo erabaki horiek gauzatzen saiatzea, eraginkortasunez betetzeko sistema bat ezarriz, eta beharrezkotzat jo duenean, erabaki horiek betetzeari uko egin dioten enpresei boikota aplikatuz.

EAEANren epaiak ezberdinak izan ziren:

- 5 epaik, otsailaren 22an eta martxoaren 7an, 8an eta 14an emandakoak, ezetsi egin zituzten aurkeztutako errekurtsoak.
- 2019ko apirilaren 8ko epaiak partzialki onetsi zuen aurkeztutako errekurtsoa. Hala, 7.534 euroko zehapena mantendu eta zenbateko horretatik gorako isuna baliogabetu zuen.
- 9 epaik, otsailaren 21ean, 22an eta 28an, martxoaren 6an, 7an eta 21ean eta apirilaren 10ean emandakoak, partzialki onetsi zituen errekurtsoak, zehapenen zenbatekoak berriro kalkulatzeko aginduz.

EAEANren azken epai horien ondorioz, LEKek, 2019ko maiatzaren 15ean izandako bileran Ebazpen Osagarria eman zuen, 130-ZEH-2016 GIPIZKOAKO BIDAARIEN GARRAIOA espedientearekin lotuta. Bertan, hainbat isun jarri zituen, 2017ko abenduaren 27ko Ebazpeneko zehapenak berretsiz.

C. Natur Kalitatea

Bizkaiko Ortularien Elkarteak (BIHOEL) salaketa jarri zuen Eroski Soz. Koop. (EROSKI)

eta Fundación HAZI Fundazioa erakundearen aurka, lehiaren defentsaren alorreko balizko jardunbide debekatuak zirela eta, haiek EUSKO LABEL KALITATEA berme-marka HAZIrena eta EROSKI NATUR marka komertziala (EROSKIrena) elkartzeko (*Cobranding*) hartutako akordioaren ondorioz.

Elkartzeko akordioak aukera emango lioke EROSKIri, bere sare komertzialaren bitartez, EUSKO LABEL produktu hauek banatzeko, kasuan kasuko ekoizlearen eta banatzailearen markekin (EROSKI NATUR): Euskal Tomatea, Euskal Letxuga, Gernikako piperra eta Euskal Baserri pipermin freskoa.

BIHOELren aburuz, akordio hori LDLren 3. artikulua urratu egiten zuen ekintza desleialen ondorioz lehia askea faltsutzen zelako.

LEA/AVCren IZk isilpeko informazio-fase bati ekin zion, aldez aurretik zehazteko ea salatutako egitateek zehapen-espeditate bat hastea justifikatzen zuten inguruabarrak zituzten.

Isilpeko informazioaren fasea amaituta, IZk LEKri proposatu zion zehapen-prozedurarik ez hastea eta informazio erreserbatuaren esparruan izapidetutako jarduketak artxibatzea, ez baitzen egiaztatu lehiaren defentsaren arloko araudia urratu izanaren zantzurik zegoenik.

LEKek ebazpena eman zuen 2019ko maiatzaren 15ean, IZren ebazpen-proposamena baietsiz, honako gogoeta hauekin bat etorriz:

- LDLren 3. artikulua debekatu egiten du lehia askea interes publikoari kalte egiten dioten egintza desleialen bidez faltsutzea; Lehia Desleialari buruzkoak Legeari lotuta zehazten dira egintza horiek, arau horretan tipifikatuta baitaude jokabide desleialok. Merkatuan eta lehiatzeko xedez egin beharko dira aipatutako egintzak.
- Orobat, kalte bereziki larria egin beharko diote interes publikoari, jokabide desleialaren benetako edo izan litezkeen eraginak direla eta, batez ere.
- LEKek ondoriozta zuen salatutako *cobranding* akordioan ez zegoela LDLren 3. artikuluan

xedatutako elementurik honako hauek gertatzeko: lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea, lehia-araua urratzearen ondoriozko lehia desleiala eta merkatuan lehiatzeko baldintzak modu larrian desitxuratzea.

- EROSKI ez da EUSKO LABEL markadun produktuen ekoizle edo egilea. Elikagaien saltzailea da EROSKI, eta horretarako produktuak marka horren duten eskusibaren enpresei erosten dizkie. Banatzaile handi gisa, ez du lehia desleialik egiten marka horretako produktuak egiten dituzten enpresekin.
- Halaber, *cobranding* akordioa ezin da esan merkatuan eragin nabarmena duenik. Nolanahi ere, EROSKI ez da erreferentziako merkaturatzaile; aitzitik, merkataritza-formatu anitzen bidez diharduten eta kontsumitzeko edonolako ondasunak (ortuariak, besteak beste) merkaturatzen dituzten banatzaileetako bat da.

BIHOELek ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen EAEANn.

D. Arabako Errioxako Arkitektoak

2015eko maiatzaren 5ean, EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAREN (EHAEO) salatu zuen LDLa urratu izanaren bere susmoa; hain zuzen ere, proiektu-idazketan eta obratuzendaritzan norgehiagoka "de facto" desagerraraztea Manueta, Eltziego, Guardia, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Samaniego eta Villabuena Araba udalerrietan.

2016ko urtarrilaren 11n EHAEOk bere salaketa zabaldu zuen. Horren arabera, 2015eko abenduaren 2an, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitara eman zela iragarki bat Biasteri-Arabako Errioxa Kuadrillarena, lehiaketa publiko ireki bidez kontratatutako arkitekto bidezko hirigintza-aholkularitza teknikoak. EHAEOn iritzian, iragarkiaren edukia eta bertan jasota dauden oinarriak ikusita, lehia askearen urraketa ondorioztatzen da.



2018ko ekainaren 29an, EHAEOn udalen aurkako salaketa zabalpen bat aurkeztu zuen.

LEKek erabaki zuen izapidetu ziren jarduketak artxibatzea, ez zelako ikusten salatu udalak eta zerbitzua eskaintzen zieten arkitektoak modu bateratuan eta/edo hitzartuan jardun zirenik kasuan kasuko udalerrian arkitektura-lanetarako kontratu txikien merkatuan lehia eragotzi, mugatu edo faltsutzeko. Salatu udalen jardunbidea aztertuta, ez zen ikusten portaera uniformerik zutenik, ezta jokamolde bera ere, aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen zizkieten arkitektoekiko, hala hauei emandako enkargu kopuruan nola enkarguon balioan.

Halaber, LEK-k ez zuen ikusi kolusioko akordiorik egin zenik Biasteri-Arabako Errioxa Kuadrillaren eta lizitazioen pleguek mesede egingo lieketen arkitektoen artean; are gehiago, pleguak aldatu ziren EHAEOk berak berraztertze errekurtsoa jarri ondoren eta Biasteri-Arabako Errioxa Kuadrillaren kontratazio-mahaiak Arabako Foru Aldundiaren Hirigintza Zerbitzuaren laguntza teknikoan izan zuen beti.

4. Ebazpenen jurisdikzio-berrikuspena

A. Jantoki publikoak

2017ko azaroaren 15ean, Aibak Trs SL (AIBAK) enpresak salaketa bat jarri zuen MLBNren aurrean Auzo Lagun S.KOOP. (AUZO LAGUN) eta Cocina Central Magui S.KOOP. (MAGUI) enpresen aurka. 2017ko abenduaren 11n, CNMC-ko Lehiaren zuzendariak LEA/AVCren aldeko esleipen proposamena egin zuen.

Salaketa hori bat zetorren AIBAKek 2016ko martxoaren 18an LEAren aurrean jarritako salaketarekin.

Lehen salaketan, espedientean jasotako informazioa eta lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintzak zehatz mehatz aztertu ostean, ezin izan zen egiaztatu merkatua banatzeko akordio bat zegoenik, LDLren 1. artikuluan tipifikatzen denaren arabera, ezta LDLren 2. artikuluan aurkako nagusitasun-tokiaren abusu bat egin zenik ere.

Beraz, LEKek 2017ko urriaren 3an ebatzi zuen zehapen-prozedurarik ez hastea eta egindako eta bideratutako jarduketak artxibatzea. Ebazpen hori irmoa da, horren aurkako errekurtsorik jarri ez delako.

Bigarren salaketan, LEKek 2018ko urtarrilaren 18an ebatzi zuen zehapen-prozedurarik ez hastea eta egindako eta bideratutako jarduketak artxibatzea; izan ere, ezin izan zen demostratu LDLren arau-haustea egon zelako zantzu nahikorik zegoenik. Salatzaileak errekurtsua jarri zuen artxibatzearen aurka EAEANko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean.

EAEANK 2019ko maiatzaren 15ean eman zuen AIBAKek aurkeztutako errekurtsua ezesten zuen epaia. Ezeste hori bi arrazoiengatik ematen zen eta biek eragozten dute funtsezko gaia aztertzea: lehen arrazoia errekurtsu-jartzailearen legitimazio aktiboaren eza zen, eta bigarrena, ezin zela errekurtsorik jarri LEKren Ebazpenaren aurka, aurretik emandako, jakinarazitako eta errekurtsu-jartzaileak onartutako Ebazpen baten erreproduktzioa zelako.

B. Bizkaiko Abokatuen Elkargoa

LEK-k 2017ko martxoaren 20an emandako ebazpenean LBLren 1.1. artikuluan Bizkaiko Abokatuen Elkargoak araua hautsi zuela erabaki zuen, zehazki, sarrera-oztopoak jarri izanagatik ofiziosko eta zaintza egonkorreko txanden bitartez emandako zerbitzuei, eta merkatua lurraldeka konpartimentutan banatu izanagatik bai Bizkaian bai gainontzeko probintzietan, barrutien bitartez. Era berean, besteak beste, Elkargoari jarrera arau-haustea eten zezan agindu zitzaion, eta Ofizioko Txandako eta Atxilotuei Laguntzeko Txandako Arautegiko Laugarren Arau Orokorra aldatzeko. Horrez gain, 100.000 €-ko isuna ezarri zitzaion.

Ebazpen horren aurka Elkargoak errekurtsu bat jarri zuen EAEANren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean. 2018ko martxoaren 19an, EAEANK onartu egin zuen Elkargoak jarritako administrazioarekiko auzo-errekurtsoa, eta baliogabetu egin zuen LEKen ebazpena.

Ondoren, LEK-k Auzitegi Gorenaren (AG) Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean aurkeztu zuen kasazio errekurtsu bat, 2018ko irailaren 24an onartu zena (3699/2018 Kasaz. Errek.). AGk epaia eman zuen 2019ko uztailaren 8an, eta errekurtsua ezetsi zuen. Epaia horretan honako hau ezarri zen jurisprudentzia-doktrina gisa (Hirugarren Zuzenbideko Oinarria):

1. Doako laguntza juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 22. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen den doako laguntza juridikoko zerbitzuen antolaketaren helburua da benetako babes judizialerako eskubidea eta bidezko prozesu ekitatibo baten jarraipena bermatzea, bai eta defentsa-eskubidea ere, auzitan aritzeko baliabide ekonomikorik ez dutenena.

Justizia Arauketa-eremu horretan hartutako erabakiak bidezkoak dira, abokaturtzat behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren heinean, eta justifika daitezke justizia-administrazio egokirako eskubidea bete nahi dutelako.

2. LDLren 1. artikuluan jasotako debekuak ez zaizkie aplikatuko ofiziozko txandako abokatuak ematen dituzten doako laguntza juridikoko zerbitzuei; izan ere, doako laguntza juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, abokatuen elkargoei dagokie zerbitzu horien antolaketa arautzea.



V. Instituzio-jarduna sendotzea

1. Agenda

LEA/AVCren lehentasunetako bat bere jarduera enpresetara eta herritarrengana hurbiltzea da, bai eta bere sorrera legean jasotzen den erakunde-

lana garatzea ere. Helburu horiek zuzendu dute erakundearen agenda 2019an zehar:

Urtarrilaren 15	"Female lawyers of the Best Friends", Bruselas	Otsailaren 21	Inaugurazioa, G_APren bulegoa
Urtarrilaren 17	Europa Batzordeko hitzaldia "Shaping Competition policy in era of digitisation"	Otsailaren 22	LEA/AVCra bisita, Ogasun eta Ekonomiako sailburua eta sailburuordea
Urtarrilaren 21	Bilera, Deustuko Unibertsidarekin	Otsailaren 27	Forum Europa, Vitoria-Gasteiz hiriko alkatea
Urtarrilaren 22	Lehia sustatzeko lantaldeak, MLBN eta agintaritza autonomikoak	Martxoaren 5	l'Autorité de la Concurrence erakundearen 10. urteurrena
Urtarrilaren 28	Kontseiluen lantaldea, MLBN eta agintaritza autonomikoak	Martxoaren 7	Forum Europa, Mondragon Corporation-eko Presidentea
Urtarrilaren 29	Elkarrizketa, El Correo	Martxoaren 14	Forum Europa, UPV-EHUko Errektora
Urtarrilaren 30	Bilera, LEK-ASOVAS	Martxoaren 25	Forum Europa, Mondragon Unibertsitateko Errektora
Urtarrilaren 31	1/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua	Martxoaren 27	Solasaldiko gosaria, ADYPE, Juan Ignacio Vidarte, Museo Guggenheim Bilbao-ko Zuzendari Nagusia
Otsailaren 7	Hitzaldia, ADEGI (formazio ekintza)	Martxoaren 28	3/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua
Otsailaren 11	Bizkaia eguna, Madrid	Apirilaren 3	Kontseiluen lantaldea, MLBN eta agintaritza autonomikoak
Otsailaren 14	Bilera, Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailarekin	Apirilaren 3	Lehia sustatzeko lantaldeak, MLBN eta agintaritza autonomikoak
Otsailaren 15	Bilera, Arabako Batzar Nagusiaren Presidentearekin		
Otsailaren 19	2/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua		
Otsailaren 21	Solasaldiko gosaria, ADYPE, Alejandro Ormazabal, VELATIaren Presidenteordea		



Apirilaren 4	Taxi-VTC garraioei buruzko mahai tematikoaren moderazioa	Ekainaren 11	Bilera, MLNBren Presidentea eta zuzendariarekin
Apirilaren 4-5	Forum Europa, LEA/AVCren Lehendakariak MLBNaren Presidentea aurkeztu du	Ekainaren 12	ACCOnen 10. urteurrena
Apirilaren 8	4/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua	Ekainaren 28	6/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua
Apirilaren 15	Bilera, Bizkaiko Induskari Elkarteak	Uztailaren 1	Bilera, Mondragon Unibertsitateko Errektorearekin
Maiatzaren 10	5/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua	Uztailaren 2	Bilera, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren eta Gobernu Onaren zuzendariarekin
Maiatzaren 15	Forum Europa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa lurraldetako ahaldun nagusiak	Uztailaren 4	Bilera, Bilboko Merkataritza Ganberako Presidentearekin
Maiatzaren 17	Forum Europa, Bilbao, Donostia/San Sebastian eta Vitoria-Gasteiz hirien alkateak	Uztailaren 11	Elkarrizketa, El Correo eta Deia
Maiatzaren 23	Bilera, Kontsumobide-ko Zuzendaria	Uztailaren 15	Bilera, Kontuen Euskal Epaitegiko Presidentearekin
Maiatzaren 23	5 bis/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua	Uztailaren 19	Bilera, Bilboko eta Arabako merkataritza-ganberetako idazkari nagusiekin
Maiatzaren 28	OCDE/G7. Concurrence et économie numérique	Uztailaren 24	7/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua
Ekainaren 3	OCDE/G7. Concurrence et économie numérique	Irailaren 25	Agerraldia, Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontu Batzorde aurrean
Ekainaren 5	Bilera, Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko eusko legebiltzarreko taldeko ekonomia bozeramailearekin	Irailaren 25	2018 Oroitidazkia aurkezpena, Eusko Legebiltzarreko Presidentearen aurrean
Ekainaren 6	Bilera, Bilboko Portuko Agintaritzarekin	Irailaren 26	Hitzaldia, CEOEn Presidentea. Club Marítimo
Ekainaren 7	SEA Urteko Batzarra		

Irailaren 27	8/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua	Azaroaren 18	Kontseiluen lantaldea, MLBN eta agintaritzza autonomikoak
Irailaren 30	Forum Europa, Iñigo Urkullu Lehendakaria	Azaroaren 18	Lehia sustatzeko lantaldeak, MLBN eta agintaritzza autonomikoak
Urriaren 3	Bilera, Europako Elkargoan graduatutako emakumeentzako Mentoring Programa abiaraztea	Azaroaren 19	Lehiaren Urteko Jardunaldia, MLBN
Urriaren 4	Urte judizialaren irekiera	Azaroaren 20	Deusto Business School. Pedro Azpiazuren hitzaldia
Urriaren 16	Bilera, Eusko Tren enpresaren ordezkariekin	Azaroaren 27	ADYPE. Informazio-gosaria Bilboko Portuko Agintaritzako Presidentearekin
Urriaren 28	Forum Europa, Pedro Azpiazu, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailburua	Azaroaren 29	Hitzaldia, LEA/AVCren Lehendakariak "Ganberako Ostiralak" saioan
Urriaren 29	9/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua	Abenduaren 2	Lehendakariarekin foroa. Aurreikuspen ekonomikoak
Urriaren 31	LEA/AVCren jardunaldia "Lehia Compliance. Beste pausu bat arauak betetzearen kulturari". Iberdrola Dorrea	Abenduaren 9	Arartekoaren 30. urteurrena
Urriaren 31	Bisita instituzionala Guggenheim Bilbao Museora	Abenduaren 19	11/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua
Azaroaren 5	AED Enpresa Foroa		
Azaroaren 8	Bilera, Azpiegitura eta Garapen Ekonomikoko sailburuarekin		
Azaroaren 12	10/2019 saioa, Lehiaren Euskal Kontseilua		
Azaroaren 16	Bilera, Eusko Tren enpresaren ordezkariekin		
Azaroaren 18	Lehiaren Defentsarako Kontseilua, Madrid.		



2. Agerraldiak Eusko Legebiltzarrean

2019ko irailaren 25ean, LEA/AVCko arduradunak Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko Presidentearekin bildu ziren, eta 2018ko Jarduera Oroitidazkia eman zioten, eta memorian

jarduera garrantzitsuenak eta Legebiltzarrarekin lankidetzan aritzeko konpromisoa nabarmendu zituzten.



Bestalde, LEA/AVCk eskatuta egindako agerraldi batean, erakundeko Lehendakariak 2018ko Oroitidazkia eta 2019ko ekitaldirako ekintza Plana aurkeztu zizkion Eusko Legebiltzarreko

Aurrekontu eta Ogasun Batzordeari, eta gauzatutako ekintzak eta programa horrekiko betetze-maila nabarmendu zituen.



3. Lehia-sareetan parte hartzea

A. Lehiaren Defentsarako Kontseilua

Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legea da arautzen duena zein erakundek duen eskumena lehiaren defentsako gaiez arduratzeko (LDL aplikatzea), eta Estatuako lehiaren agintaritzen arteko koordinazio-mekanismo batzuk aurreikusten ditu. Horien artean, Lehia Babesteko Kontseilua da, ofizialki, Estatuak, MLBNk eta lehia-agintaritza autonomikoez elkarren artean duten lankidetzarako, koordinaziorako eta informaziorako organo gorena.

Hala, 2019ko azaroaren 18an, LEA/AVCko Lehendakariak Euskadiko lehiaren erakundea ordezkatu zuen Lehiaren Defentsarako Kontseilu honen urteroko bileran. Bertan, aurreko ekitaldiko jardueren berri eman zuten, bai eta Lehiaren Defentsari buruzko Legea aldatzeko beharrezko neurrien berri ere, ECN+⁵ Zuzentaraua ezarri behar delako eta egun errelitateak aginduta beharrezkoak diren beste aldaketa batzuk egiteko.



⁵ Zuzentaraua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2018ko abenduaren 11koa, Estatu Kideetako lehiaren arloko agintaritzeari lehiari buruzko arauak aplikatzeko bitarteko eraginkorragoak ematera eta barne-merkatuaren funtzionamendu zuzena bermatzera bideratuta dago.



B. Estatuko lehia-agintaritzen arteko lehia-sarea

a. Lantaldeak

Estatu-mailako lehia-sareak hainbat lantalde biltzen ditu, eta horietan arazo komunak edo berezko irizpidearen arabera landu beharreko gai espezifikoak partekatzen dira. Hiru lantalde dira aldizka biltzen direnak:

- Kontseiluen lantaldea

Talde honetan biltzen dira zehapen-espeditentek ebazteko ardura duen kide anitzeko organoa duten Estatuko lehiaren agintaritzak: CNMC, LEA/AVC, Autoritat Catalana de la Competencia, Comision Galega da Competencia, Comissió de Defensa de la Competència de la Comunitat Valenciana, Tribunal de Defensa de la Competencia de Aragón, Jurado de Defensa de la Competencia de Extremadura, eta Agencia de Defensa de la Competencia de Andalucía.

2019an, Kontseiluen Lantaldeak hiru bilera egin zituen, urtarrilaren 22an, apirilaren 3an eta azaroaren 18an. Bilera horietan honako gai hauek jorratu ziren: Lehiaren Defentsarako Legea eta ECN+ Zuzentaraua erreformatzea; lehiaren agintaritzen baliabideak eta independentzia; transakzio-akordioak; zehapenak edo kontratatzeke debekua.

- Lehia sustatzeko lantaldea

Estatuko agintaritzetako sustapen-arduradunak biltzen dituen talde horrek hiru bilera egin zituen 2019an (urtarrilaren 22an, apirilaren 3an eta azaroaren 18an), eta gai hauek jorratu zituen: lanbide-elkargoak; datuen babesa; taxien eta VTCen erregulazio-murrizketak; hiriarteko mugikortasuna; edo profesionalen elkargoak.

- IZk koordinatzeko lantaldea

Hirugarren talde hau hainbat erakundetako ikerketa-zuzendaritzek osatzen dute, eta 2019an bi bilera egin ziren: apirilaren 3an eta azaroaren 18an. Talde honek espeditenteen esleipenari

buruzko prozedurazko gaiak jorratzen ditu, bai eta lehiaren aurkako praktiken ikerketari buruzko gaiak ere.

b. Lehiaren Sarearen inguruan beste topaketa batzuk

- Fintech fenomenoak: aukerak eta erronkak

2019ko otsailaren 12an, LEA/AVCko langileen talde handi batek *streaming* bidez jarraitu zuen MLBNk antolatutako jardunaldia, fintech delakoan eta lehiaren eta erregulazioaren arloko inplikazioen inguruan.

- Lehiaren Defentsarako XII Jardunaldi Nazionalak

Apirilaren 4an eta 5ean, Lehiaren Defentsarako XII. Jardunaldi Nazionalak egin ziren Iruñeko Baluarte Biltzar Jauregian. 2019an antolatu zituen Nafarroako Gobernuak Lehiaren Zuzendaritzak, "Bide onetik joateko erregulazioa" izenburupean.

Estatuko lehiaren agintaritza guztiak eta sektore publiko eta pribatuko profesionalak biltzen dituen foro horretan, lehiarekin eta erregulazio ekonomikoarekin lotutako hainbat gai jorratu ziren, eta mahai tematiko bat eskaini zitzaizen hiri-garraioaren erregulazio onaren printzipioei: taxiak eta VTCak. LEA/AVCko Lehendakariak eztabaida moderatu zuen mahai horretan, eta gai horretako aditu ezagunek parte hartu zuten: Rafael Allendesalazar, MLAB Abogados bulegoko bazkidea; Alejandro Requejo, Compass Lexecomeko Presidenteorde exekutiboa; Joaquín López Vallés, MLBNko Sustapeneko zuzendaria; José Luis de Alcaraz Sánchez-Cañaveral, Andaluziako Lehiaren Defentsarako Agentziako Presidente; eta Salvador Milà Solsona, AMBko Presidentetza arloko zuzendaria.



- Ikerketa-teknikak eta teknologia berriak eguneratzea

Apirilaren 30ean, Ikerketako zuzendaria eta lehiaren arloko bi arduradun, beste agintari batzuetako espezialistekin batera, MLBNren egoitzara joan ziren ikuskapenen arloko ezagutza teknologikoak eguneratzeko.

- Aldebiko bilera LEA/AVC-Kataluniako Lehiaren Agintaritzak (ACCO)

Ekainaren 11n, aldebiko bilera bat egin zen, eta bertan, agintari autonomikoen egunerokotasunarekin lotutako gaiak eta esperientziak partekatu ziren.

- ACCOren 10. urteurreneko jardunaldia: Lehiaren politikaren egungo erronkak

10. urteurrena zela eta, Kataluniako Lehiaren Agintaritzak (ACCO) lan-jardunaldi bat antolatu zuen ekainaren 12an, lehiaren politikak zeuzkan erronkei heltzeko.

Jardunaldi horretan, LEA/AVCko Kontseiluko kideak izan ziren, ezagutza eta eztabaida partekatu ahal izan zutenak lehen mailako pertsona ospetsuekin: besteak beste, Frédéric Jénny, ELGAko Lehia Batzordeko Presidentea; Massimo Mota, Pompeu Fabrako Ikerketa irakaslea eta Europako Batzordeko Lehiaren Zuzendaritza Nagusiko ekonomialari buru ohia, Europako kontzentrazioak kontrolatzeko politikaren erronkei buruz aritu zena; José María Gimeno Feliú jaunak kontratazio publikoari buruzko mahai batean parte hartu zuen; edo Christina D'Cunha, Datuak Babesteko Europako Ikuskatzailearen Bulegoko burua, datuak gaur egun lehiaren defentsaren aplikazioan duen oinarrizko interakzioaren berri eman zuena.



- Lehiari buruzko Urteko Jardunaldia (2019): "ECN+ eta Whistleblowers zuzentarauen transposizioan aurrera gitea". MLBN

Azaroaren 19an, MLBNk Lehiaren Urteko Jardunaldia lehiaren zuzenbidea aplikatzeko funtsezko bi zuzentarau aztertzeke erabili zuen.

Lehenik eta behin, ECN+ Zuzentaraua, lehia-agintaritzen ahalmenak harmonizatu eta indartu nahi dituen Europar Batasun osoan. Zuzentarau hori ordenamendu juridikora eramateko fasean dago, eta laster irekiko du Lehiaren Defentsarako Legea aldatzeko atea.

Bigarrenik, urriaren amaieran EBAOn argitaratutako Whistleblower⁶ Zuzentaraua aztertu zen. Zuzentarau horren helburua da Batasuneko zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa –besteak beste, lehiaren zuzenbidearen arau-hausteei buruzkoak– ematen duten pertsonen babes-baldintzak harmonizatzea. Beraz, lehia-agintaritzen salaketa-kanalak

Zuzentarau honek ezartzen dituen babes-estandar berrietara egokitu beharko dira, bai eta Estatuko araudiak transposizio-arauan hartzen dituen gaietara ere.

Jardunaldia Nadia Calviño Ekonomia ministroak itxi zuen, eta lehiaren politikarekin zuen konpromiso ezaguna adierazi zuen.

C. LEA/AVC foro globaletan

LEA/AVCren helburu estrategikoen artean dago nazioartean presentzia eta ikusgarritasuna izatea; izan ere, Europako araudiak eta jurisprudentziak, bereziki, eta nazioartekoak, oro har, funtsezko garrantzia dute lehiaren agintaritza baten egunerokotasunean. Lehiaren zuzenbidearen dimentsio global horrek LEA/AVCren inplikazio berezia eskatzen du, erakunde aitortua izaten jarraitzeko eta European eta nazioartean ordezkaritza handiena duten lehia-foroetako batzuetan parte hartzera gonbidatzen jarraitzeko.

⁶ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1937 (EB) Zuzentaraua, 2019ko urriaren 23koa, Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa.

a. Europako Batzordea. “Shaping competition policy in the era of digitization”

Europar Batasunak konpromiso argia du aro digitalera egokitzeko, eta, bereziki, Europako Batzordearen Lehiaren Zuzendaritza Nagusiak, Margrethe Vestager buru zuela, hausnarketa prozesuan dago lehiaren zereginari buruz eta bere mekanismoak berrikusteko beharrari buruz, plataforma digitalek eta datuek ezohiko boterea hartu duten mundu gero eta globalizatuago batean liderra izan daitekeen Europa digital bat eraikitzeko.

Hala, 2019ko urtarrilaren 17an, Europako Batzordearen Lehia Zuzendaritzak konferentzia bat egin zuen Bruselan. Konferentzia horretan, munduko aditu handienak bildu ziren lehiarekin, datuen babesarekin, kontsumitzaileen


eskubidearekin, teknologia berrieekin eta abarrekin lotutako gaietan. LEA/AVCK hausnarketa-jardunaldi honetan parte hartzeko gonbita jaso zuen.

Vestager komisarioaren hitzaldiarekin ireki zen eta Jean Tirole, Ekonomiako Nobel sariduna, hitzaldi magistrala eman zuen. Horrez gain, lau eztabaida-panel izan ziren, eta horietan aztertu eta identifikatu ziren datozen erronka digital nagusiak eta lehia-politikan dituzten ondorioak. Konferentzia honen azken txostena, Jacques Crémerrek koordinatua, eremu digitaleko lehiaren araudia baloratzeko agintariek erabiliko duten funtsezko dokumentuetako bat da.



b. Autorité de la Concurrence. 10. urteurrena

Autorité de la Concurrence agintaritzak gonbidatuta, LEA/AVC-k 2019ko martxoaren 5ean izan zen Frantziako lehiaren agintaritzaren hamargarren urteurreneko ekitaldietan.



c. ELGA. G7 Lehia eta Ekonomia Digitalari buruzko Konferentzia

Ekainaren 3an, ELGAK, Frantziako Ekonomia eta Finantza Ministerioak, Banque de Francek eta Autorité de la Concurrencek antolatutako konferentzian parte hartzeraz gonbidatu zituzten LEKeko kideak, G7aren Miarritzeko bileraren aurreko ekitaldien esparruan.

Foro horretan, ekonomia digitalari buruzko ikuspuntuak eta esperientziak trukatu ziren arduradun politikoen, mundu akademikoaren eta lehiaren agintarien artean, hiru paneletan, eta honako alderdi hauek jorratu ziren, besteak beste: datuak eta lehia; berrikuntza digitala eta lehia; eta lehiaren politika arautzeko erronkak.



d. XVI Harvard Course in Laws and Economics

Urrian, LEA/AVC-k Harvardeko unibertsitate ospetsuan zuzenbidearen eta lehiaren azterketa ekonomikoari buruzko ikastaro batean parte hartu zuen. Programa hau Amadeo Petitbó eta Jesús Cabrillo irakasleak koordinatzen dute Rafael del Pino Fundazioaren babespean.

4. Gizartera hurbildu

Bere zeregin instituzionalaren eta lehia sustatzeko eginkizunaren esparruan, LEA/AVC-k konpromisoa du gizartera eta bertako erakunde eta eragileengana hurbiltzeko, lehiaren balioak, horiek gizartearentzat dituzten onurak eta gaiaren inguruko gaurkotasuneko gaiak transmititzeko. Hala, 2019an zehar, LEA/AVC-k hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera izan du, horietako batzuk LEA/AVC-k berak antolatutakoak eta beste batzutan hizlari gisa parte hartu du.

A. LEA/AVCk antolatutako jardunaldiak

a. FÓRUM EUROPA. Tribuna Euskadi

Apirilaren 8an, LEA/AVC-k informazio-gosari bat antolatu zuen Forum Europearekin eta BBK Fundazioaren babesarekin. Lehendakariak -150 bertaraturen aurrean- erakundearen aurkezpen instituzional bat egin zuen, Estatuan lehiaren zuzenbidea aplikatzeko sistema deszentralizatua

azalduz, MLBNk eta autonomia-erkidegoetako agintariek partekatzen dutena, eta, bereziki, LEA/AVC-k Euskadiko lehiaren bermatzaile gisa dituen funtzioetan eta eskumenetan sakonduz.

Sarrera horren ondoren, mahaiburuak José M^a Marín Quemada MLBNko Presidentea aurkeztu zuen, eta hark, buru den erakundeari buruzko funtsezko gaiei buruz hausnartu ondoren, hainbat gaiei buruzko galderei erantzun zuen: merkatu elektrikoa eta MLBNk bereganatutako eskumenak, finantza-sektorea eta fusioak, telekomunikazioen merkatuko eskaintzen diren paketizazioak, posta-merkatuaren egoera eta abar.



b. Lehia Compliance

2019ko urriaren 31n, LEA/AVC-k "Lehia. Beste pauso bat araudia betetzearen kulturaren" laneko gosaria antolatu zuen. Iberdrolaren eta Eusko Ganberen babesa izan zuen ekitaldi horrek, eta 120 profesional eta erakundeetako eta enpresetako

ordezkari inguru bildu zituen Iberdrolaren Dorreko auditorioan.

LEA/AVC-k Lehiaren arloko Compliance Gida aurkeztu zuen, enpresa-kudeaketan lehiaren



aldagaia sartzearen garrantzia nabarmentzen duen dokumentu praktikoa. Gidak araudia betetzeari buruz egindako kontsulta publikoaren emaitzak ere jasotzen ditu.

Hizlarien artean, Antonio Gomesek, ELGAko Deputy for Financial Affairs zuzendariak, lehiaren eta nazioarteko esparru ekonomikoan hura

betetzearen garrantzia azaldu zuen; eta enpresen panel batek, Siemens Gamesa, RPK eta Orona Corporación horien artean, araudia betetzearen garrantzia eztabaidatu zuen, lehiaren aurkako jokabideak prebenitzeko elementu gisa, baita zehapen-espeditze baten esparruan aringarri gisa ere.



B. Jardunaldietan parte hartzeak

a. ADEGI. Ziur zaude zure enpresak lehia-arauak betetzen dituela?

Urtarrilaren 31n, eta ADEGIren programazioaren esparruan, Alba Urresola Lehendakariak eta Enara Venturini mahaikideak LEA/AVCren lana azaldu zieten Gipuzkoako enpresetako ordezkariak,

lehiaren aurkako jokabideak identifikatzeko eta lehia-arauak betetzeko enpresa-programak abian jartzeak dakartzan onurak azpimarratuz.



b. IVAP. Kontratazio publikoari, lehiari, gardentasunari, konfidentzialtasunari, komunikazio eta jakinarazpenei, datuen babesari, osotasun-printzipioari eta kontratazio publikoaren beste inplikazio batzuei buruzko ikastaroa.

Urriaren 2an, 3an eta 4an, LEA/AVCko lehia-arduradunek, Ainara Hercek eta Guillermo Aranzabek, aurrez aurreko prestakuntza eman zuten Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeari buruz eta, bereziki, lizitazio publikoetan lehia askea babestu beharri buruz, hori baita legearen oinarritzko printzipioetako bat.

LDLk debekatutako jokabideak erreparatu ziren, eta arreta berezia jarri zitzaion kontratazio publikoko kolusio-akordioei edo *bid rigging*-ari eta horien ondorioei, hori guztia kasu errealekin argituta.

Era berean, SPKLk lehia-agintaritzari dagokienez ezartzen dituen betebeharrak gogorarazi ziren.

c. Ganberako Ostiralak. Lehia arloko Compliance-aren garrantzia enpresetan jardunbide egokiak ezartzeko eta zigorrak saihesteko

2019ko azaroaren 29an "Ganberako ostiralak" enpresa topaketan LEA/AVCko Lehendakariak 80 pertsonen aurrean LDL abiapuntu harturik, legea betetzearen aldeko kulturaren sakondu zuen.

Lehia arloko araudia hausteak ondorio larriak ekar ditzake, besteak beste isunak, zuzendaritza-karguentzako zigorrak, administrazio publikoekin

kontratatzeko debekuak, kalte-ordainen erreklamazioak eta, zer esanik ez, erakundearen izen onari egiten zaion kaltea. Horregatik, LDLren balizko arau-hausteak ezagutu, identifikatu eta prebenitzea aurrerapausu bat da legea betetzearen kulturaren.



d. EHU/UPV. Teknologia berrien eragina merkatuetan eta lehian

Abenduaren 12 eta 13 egunetan zehar, UPV/EHUko Enpresa Zuzenbide Sailak antolatuta, Valladolideko Unibertsitatearen lankidetzarekin, jardunaldian teknologia berrien eragina eta lehiari buruzko gaiak aztertuko ziren, hala nola, plataforma digitalen merkatura sartzea, online salmenten banaketa eta murrizketak eta digitalizazioa.

Zorione Garitano andereak, LEA/AVCren Lehiaren Arduraduna, "Euskadin gidaridun garraio-ibilgailuek (VTC) emandako garraio-zerbitzuen erregulazioa" gaia jorratu zuen.

C. Erakundekiko eta enpresakiko harremanak

Erakundearen agendan islatzen den bezala, LEA / AVCk hainbat erakunde eta eragile ekonomiko eta sozialekin egin ditu bilerak eta lankidetzak, besteak beste, Arartekoarekin, Kontsumobiderekin, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin, enpresa-ordezkariekin eta abarrekin.

D. Gardentasuna eta irisgarritasuna

a. Komunikabideak

2019an, Agintaritzak **7 prentsa-ohar** egin eta bidali ditu komunikabideetara, bere jarduerari buruzko gai garrantzitsuei buruz, hala nola txostenei edo ebazpenei buruz. Gainera, Lehendakariak, erakundearen ordezkari gisa, hiru elkarrizketa egin ditu Euskadin zabalpen handiena duten idatzizko komunikabidetan: El Correo, Deia eta Diario Vasco.

Guztira, 200 berri inguruk eman dute LEA/AVCren jardueraren berri.

«Los 80 millones de perjuicio por el cártel de los comedores escolares no tienen ninguna base»

Alba Urresola Presidenta Autoridad Vasca de la Competencia

En su primera entrevista con DV, la responsable de Competencia contradice las conclusiones del Parlamento y señala que en ningún momento se han acreditado daños o cuantías determinadas.

ALBA URRESOLA
La presidenta de la Autoridad Vasca de la Competencia (AVC) responde a las conclusiones del Parlamento y señala que en ningún momento se han acreditado daños o cuantías determinadas.





«En lo que a la Autoridad Vasca de la Competencia se refiere, según los datos que me han pasado los operadores de la actividad del TSPV no se ha acreditado ninguna base de datos que se pueda imponer. El TSPV no dispone de ningún tipo de información que permita replicar o validar la información de un operador...»
«Según me consta, a lo de julio se iniciaron los trabajos de que se trata en el TSPV...»
«El TSPV ha recopilado los datos de los operadores de la actividad del TSPV...»
«Según me consta, a lo de julio se iniciaron los trabajos de que se trata en el TSPV...»
«El TSPV ha recopilado los datos de los operadores de la actividad del TSPV...»

Competencia pide mayor apertura en el negocio de las gasolineras en Euskadi

Recuerda que la irrupción de nuevos operadores independientes abarata los precios y mejora el bienestar social en un negocio que es el paradigma de oligopolio...
ALBA URRESOLA
La presidenta de la Autoridad Vasca de la Competencia (AVC) recuerda que la irrupción de nuevos operadores independientes abarata los precios y mejora el bienestar social en un negocio que es el paradigma de oligopolio.

En el resto de España, la única apertura en el negocio de las gasolineras en Euskadi es la de la CCAA de Navarra...
AVC pide mayor apertura en el negocio de las gasolineras en Euskadi



Alba Urresola

“Somos favorables a que Uber y Cabify entren en Euskadi”

Alba Urresola, presidenta desde 2017 de la Autoridad Vasca de la Competencia, expone sus criterios sobre algunos de los temas más polémicos de la sociedad vasca

BILBAO – Los informes de este organismo no son vinculantes pero la presidenta admite que cada vez van tomando un mayor peso en la sociedad. Parte de su trabajo se centra precisamente en darse a conocer. Incluso en breve presentará una guía. ¿Qué funciones tiene la Autoridad Vasca de la Competencia? —Somos un organismo autónomo dependiente del Gobierno vasco adscrito al departamento de Hacienda y nuestra misión consiste en promover y garantizar las condiciones de competencia en los mercados de Euskadi. Para ello, tenemos una serie de funciones que nos da la ley que básicamente se pueden resumir en dos grandes bloques. Por un lado, tienen que ver con los expedientes sancionadores en los que se instruye un posible ilícito de competencias y si el expediente así lo indica y la tramitación puede terminar en una resolución, puede suponer una sanción económica. Por otro, tenemos otra serie de funciones que se llama la promoción de la competencia y ahí se aglutinan unas cuantas tareas que son tan importantes o más que la parte sancionadora y que son acciones a más a corto plazo. **La Autoridad Vasca ha mantenido un criterio diferente de la CNMC con respecto a los pisos turísticos.**

GUÍA DE COMPLIANCE

ACERCAR LA COMPETENCIA

● Didáctica. Con el fin de introducir la competencia en las empresas, la Autoridad Vasca de la Competencia ha elaborado una guía de compliance en materia de competencia en la que se plantea cuáles son las conductas sujetas a este tema. Informa de que la ley es de obligado cumplimiento, no un plus, sino una normativa como cualquier otra, ya sea la laboral o de seguridad pública e informa a su vez de las consecuencias de no cumplir con ella. En la misma se explica de manera sencilla para llegar también a empresas y pequeñas empresas que no están familiarizadas qué es la competencia, las sanciones. Se alerta de que las multas son altísimas, por su necesidad de ser disuasorias y que pueden afectar a directivos, contratación, además del tema reputacional. De una manera bastante didáctica se pone encima de la mesa que la competencia no se puede desear y que se debe tener en cuenta en los departamentos comerciales... Esta guía se presentará en otoño aunque ya está en la página web de la Autoridad porque han iniciado un proceso de consulta pública con la ODR, una organización internacional que trabaja en temas de competencia y transparencia.

¿Cuál es su postura? —Decidimos no imponer las normas municipales recogidas en el PGOO a este respecto. Hicimos un estudio bastante profundo de cuál era la situación de los pisos turísticos en Euskadi centrado en las tres capitales. Las defensas que llevamos fueron básicamente que la situación y la evolución del turismo en este país asociado a la especificidad de la situación de la vivienda, si hacía necesaria una regulación. Muchas veces pensamos que la competencia y la intervención a través de una regulación pueden ser antagónicas, pero no es así. Son actuaciones que tienen que ser complementarias y en este caso si era una regulación necesaria y emitimos una serie de recomendaciones basadas en otras ciudades y optamos por esa vía. Recientemente el Tribunal Superior de Justicia se ha pronunciado sobre el recurso que puso la Comisión Nacional de Mercados y competencia a la modificación del Plan en Bilbao y han desestimado el recurso. Nosotros hemos hecho alegaciones en base a recomendaciones que extraímos del estudio. ¿Qué recomiendan ustedes? —Venmos que la situación hace que la



b. www.competencia.euskadi.eus

Webguneak LEAlk eta LDLk ezarritako **gardentasuna** behar bezala **betetzen** dela bermatzen du: kanal honetan 33 eduki berri argitaratu dira guztira, hala nola IZk espedienteak hasteko hartutako erabakiak, Kontseiluak zehapen-espedienteen esparruan emandako ebazpenak, lehia sustatzeko txostenak, azterlanak, gidak edo bestelako dokumentuak eta LEA/AVC-k antolatutako ekitaldiak edo egintzak.

www.competencia.euskadi.eus webgunearen bidez honako hauek egin dira:


- Compliance-ri buruzko kontsulta publikoa zabaldu eta bertan parte hartu
- Compliance Gida deskargatu
- Egindako 7 prentsa-ohar ezagutu
- 2019ko sustapen-txostenen edukiak eskuratu
- Agintaritzaren jardueraren historia guztia kontsultatu

20.000 bisita jaso dira webgunean.



c. LinkedIn

LEA/AVCk 31 post-a zabaldu ditu sare sozial horren bidez. 2018an sartu zen sare horretan, eta 2019ko abenduaren 31n 172 jarraitzaile zituen.



VI. Erakunde autonomo bat kudeatzea

1. Organoak

LEA/AVC 4 organok egituratzen dute:

- Lehendakaria, pertsona bakarreko organoa da; LEA/AVC zuzendu eta ordezkatzeko eginkizunak betetzen ditu, eta LEKko burua ere bada.
- Lehiaren Euskal Kontseilua, LEK, lehia sustatzeko eta horri lotutako gaiez ebazteko kide anitzeko organoa da; lehendakariak, bi kontseilukidek eta idazkari nagusiak osatzen dute; azken horrek ahotsa bai, baina ez du botorik.
- Ikerketa Zuzendaritza, instrukzio eginkizunak betetzen ditu.
- Idazkaritza Nagusia erakundeari laguntza material, administratibo eta teknikoa emateko organoa da, baita aholkularitza juridikokoa ere.

Idazkari Nagusia: Ainara Herce San Martín

Lehia arduradunak: 6

Goi-kargudunaren idazkaria: 1

Administrazio pertsonala: 1

Pertsona-taldeari dagokionez, 2019an honako hau nabarmendu da:

- Ainara Herce –lehen LEA/AVCko lehiaren arduraduna zena– idazkari nagusi gisa sartu da, izendapen askeko sistemaren bidez.
- Goi-kargudunaren idazkari berri bat izendatu da, izendapen askeko sistemaren bidez.
- Zerbitzu-eginkizun baten bidez, lehiaren arduradunaren plaza bat bete da, hutsik baitzegoen.
- LEA/AVCko lanpostuen zerrendan bi lanpostu sartu dira erakundearen administrazio-egitura indartzeko: Administrazio eta Zerbitzuetako teknikari bat eta administrari laguntzaile bat.

2. Pertsonak

LEA/AVC taldeak 13 profesional ditu, eta eginkizun hauek betetzen dituzte:

Lehendakaria: Alba Urresola Clavero

Lehiaren Euskal Kontseiluaren kontseilukidek:

- Rafael Iturriaga Nieva
- Enara Venturini Alvarez

Ikerketaren Zuzendaria: Joseba Andoni Bikandi Arana

3. Diru baliabideak

2019ko ekitaldian, LEA/AVC-k 1.485.502 euroko aurrekontu eguneratua izan zuen.

Laburbilduta, honako hau izapidetu eta tramitatu da:

Azalpena	Aurreikusitako	Obligazio onartuak		Ordainketak	
	€	€	% AURREKONTUA	€	% AURREKONTUA
Langile-gastuak	1.093.950	954.879	87%	954.879	87%
Funtzionamendu gastuak	391.552	374.385	96%	330.052	84%
Gastu arruntetarako transferentziak eta dirulaguntzak	0	0	0	0	0
Guztira	1.485.502	1.329.264	89%	1.284.931	86%

4. Baliabide materialak

Honako proiektu hauetan lan egin da:

- Web orria hobetzea.
- Administrazio elektronikoa: sistemen digitalizazioa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.
- Datuen babesa: Tratamendu-Jardueren Erregistroa (TJE) eguneratzea, Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorra betetz. LEA/AVC-k datuak tratatzeko egiten dituen jarduerak Euskadiko Erregistroaren webgunean kontsulta daitezke: www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/.

5. Etengabeko prestakuntza

Prestakuntza da LEA/AVCn lan egiten duten pertsonen motibazio pertsonal eta profesionalaren gakoetako bat. Lehiaren gaiak, gainera, araudiaren eta jurisprudentziaren arloko azken joeretan eta berrikuntzetan eguneratuta egotea eskatzen du. Horregatik, LEA/AVCk etengabeko prestakuntzarekin duen konpromisoa funtsezkoa da, eta 2019an 19 prestakuntza-ikastaroetan parte hartzean islatu da. Horrela, 215 ordu eman dira prestakuntza-ekintzetan.

6. Konpromisoa genero-berdintasunarekin

LEA/AVC-k jakin badaki genero-berdintasunarekin lotutako bere aldaketa-potentzialtasun handiena kanpo-komunikazioarekin eta bereziki maskulinizatutako eremuetan emakumeek sareetan parte hartzeko programei laguntzearekin lotuta dagoela.

Hori dela eta, egindako ekintza honelakoak izan dira:

- Komunikazioan berdintasuna bultzatzea, dokumentazioaren lengoia aintzat hartuz eta berrikusiz.
- LEA/AVCko pertsonala formatu:
 - Pertsona batek parte hartu du IVAPek emandako "El uso igualitario del lenguaje en nuestra comunicación" online ikastaroan.
 - Pertsona bi parte hartu dute "Activa el liderazgo femenino" online ikastaroan.
- Bereziki maskulinizatutako eremuetan emakumeek sareetan parte har dezaten laguntzea:
 - Lehiaren zuzenbidearen munduan inplikaturik dauden emakumeak ikusaraztea helburu duten sareen parte izanik: W@ competition.
 - "Mentoring programme for Spanish female recent graduates" gazte graduatuak lan-munduan sartzeko tutoretza emanez.


Era berean, gure webgunean puntu lila erakutsi da, emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko ikurra.



VII. Laburtzapenak



EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAEAN	Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusia
ECN+	Zuzentaraua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2018ko abenduaren 11koa, Estatu Kideetako lehiaren arloko agintaritzei lehiari buruzko arauak aplikatzeko bitarteko eraginkorragoak ematera eta barne-merkatuaren funtzionamendu zuzena bermatzera bideratuta dago
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian
EHAEO	Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
HAPO	Hiri Antolamenduko Plan Orokorren
HLBHIP	Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua
IZ	Ikerketaren Zuzendaritza
LEK	Lehiaren Euskal Kontseilua
LEAL	Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legea
LCC	Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legea
LDL	15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzkoa
LEA/AVC	Lehiaren Euskal Agintaritza/Autoridad Vasca de la Competencia
MLBN	Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala
SPKL 2017	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentzarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora
VTC	Alokairuko Ibilgailu Gidaridunekin



Lehiaren Euskal Agintzaritza
Autoridad Vasca de la Competencia

 Ercilla 4, 2. 48009 BILBO

 Tel. 944 032 813

 www.competencia.euskadi.eus

 infocompetencia@avdc.eus

 [competencia.euskadi.eus](https://www.linkedin.com/company/competencia.euskadi.eus)